

58

500 pezeta / 20 libera • 2001eko MAIATZA euskal heziketarako aldizkaria

hh

hik hasi

ELKARRIZKETA: JOXE FERNANDO
GARMENDIA • EKARPENA: IRA-
KURKETA-IDAIZKETA • UDAKO
TOPAKETA PEDAGOGIKOAK •
TEORIAK: DANIEL GOLEMAN



GATA

Etorकिनak eskolan

Elkarbizitza bideratuz



IBAIZABAL

NOBEDADAEAK 2001



LMH^{ko} 1. zikloa



Kometa Ibiltaria Proiektua

HH


4 urterako materiala



Literatura

31 titulu eta 2 bilduma berri

DBH^{rako} Etika eta Alternatiba





gaia

ETORKINAK ESKOLAN

Gure artean gero eta etorkin gehiago bizi dira eta beraien eskolatzea gure eskuetan dago. Egokitzapena eta integrazioa bideratu behar ditugu, eta horretan ari direnean ahotsa bildu dugu.



elkarrizketa

JOXE FERNANDO GARMENDIA

Gipuzkoako bailaretako eskola txikiak eta azuo eskolak XX. mendean

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

ETORKINAK ESKOLAN

Elkarbizitza bideratuz

SOS Arrazakeria, Intxaurren ikastola, Ugaro eskola...

20 elkarrizketa

JOXE FERNANDO GARMENDIA

26 ekarpena

Eduard Vallés eta Ana Teberosky

Ikastolen Elkarteko VIII. Jardunaldietan

30 ekarpena

hik hasi Udako Topaketak

Hainbat ikastarori buruzko ingormazio gehiago

35 berriak

UEUK bi egoitza berri inauguratu ditu. Irakurketaren inguruko JUUL kanpaina arrakastatsua izan da.

36 argitalpenak

39 teoriak

Daniel Goleman

Milagros Pollán

ADI! Lekuz aldatu gara eta hau da helbide berria:

Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua.

20018 DONOSTIA GIPUZKOA.

Tel: 943/ 37.14.08 Fax: 943/ 37.21.54.

Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 37.14.08

Fax: 943/ 37.21.54. Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Koordinatzailea: Joxe Mari Auzmendi Erredakzio burua; Ainhoa Azpiroz Erredakzio batzordea; Itziar Barriola, Mikel Estorba, Arantxa Goiburu, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Inanol Agirre, Abel Ariznabarreta, Bego a Bilbao, Marian Bilbatua, Xabier Isasi, Irene Lopez-Go i, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urraza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Ota o eta Pruden Sodupe. Diseinua: TRAM Graf!k maketazio, aurreinpresioa: Gaizka Ibeas. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Etorkinen gainean (hikhasi).

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Onetsia 2001/V/8. Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz baliu zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

EUSKO JAURLARITZA




GOBIERNO VASCO

Ostadarren hotsaz

ASCHERO musika sistema
Euskal abestiak, abesti eza-
gunak... sistema horretan
aurkeztuak.

Egilea: Jose Ramon Vitoria



hh
hik hasi

editoriala maiatza

Hezkuntza Erkidegoa ere EAEko hauteskundeen emaitzei begira



EAEko Hezkuntza Saila osatuko duen talde berriak konpromiso bat du Euskal Hezkuntza Erkidegoarekin Hezkuntza Sistema propioaren bidean.

Hauteskundeak heldu dira. EAEko biztanleek lehendakaria aukeratu behar dute. Eta lehendakari horrek, egiten dituen tratuen arabera, beste zenbait gauzen artean, EAEko Hezkuntza Saila osatuko du.

Euskal Herria irainka eta Euskal Hezkuntza Sistemaz bereak eta bi esaten ari diren horiek, EAEko mar-txa gobernatzeko irrikitan dauden horiek, Euskal Hezkuntza Erkidegoa burutzen ari den lanaz ezer gutxi dakitela erakutsi dute. Herri honen, herri gisa gara dadin, Hezkuntza Sistema propioa behar du. Eta horretan, alderdikeria guztien gainera, ados dago euskal gizartearen gehiengoak. Beraz, irabazlea edozein delarik ere, errealitate hori behar luke bere lan ildoaren oinarri.

Bestalde, EAEn egun dagoen Hezkuntza Sistema herri honen izazari eta beharrei erantzutetik urruti samar dagoela irizten badiogu ere, hor dago azken urte hauetan hezkuntza sare desberdinek eta irakaskuntzako erakundeek beregain hartu duten konpromisoa eta erakusten ari diren heldutasuna. EAEko Hezkuntza Saitetik bultzatzen ari den hezkuntza politika, bere hutsune guztiekin, pixkanaka begiak zabaltzen ari da Hezkuntza Erkidegoa egiten ari den ekarpen aberatsari. Eta ez da gutxi!

Teknologiak eta zientziak agintzen duten garai hauetan, gizarte eskolatua eta eleanitza sortu dugu. Eta hori guztia euskaraz egin dugu gainera, Euskal Herriko biztanleek duten kultur eta hizkuntz aniztasu-

na aintzat hartuz. Kontuan izan behar dugu EAE dela euskararen ofizialtasuna duen lurralde bakarra. Ondorioz, kanpaina honetan zehar hitzetik hortzera hainbeste promesibili duten horien guztien alde-tik errespetua besterik ez dugu eskatzen, errespetua egindako lanari eta gizartearen gehiengoak garbi adierazi duenari.

Dena egiteko dugu eta koska handienak gaintzeke. Baina Euskal irakaskuntza badoa eta joan horretan ez goaz esku hutsik. Egungo muga administratiboak gaintu eta euskararen herrian Euskal Kurrikuluma gauzatzen dugun arte urrats asko eman behar ditugu oraindik. Bitartean ez dezagun lortutakorik galtzen utzi!

kronika

Udaberriko festa eta jaialdiak burutzen ari gara, eta jende aldetik erantzun onarekin, espero bezala. Ikas-Bik Maulen ospatu zuen bere urteroko besta. Beste urtetan Donibane Lohitzunen ospatzen bazen ere, aurtan Maulen izan da. Horrekin, Zuberoako gurasoak haurrak gela elebidunetan ezartzera animatu nahi izan da. Senperen, osteran, urtero bezala, lakuaren bueltan urratsak ematera jende asko bildu zen, egunaldi txarrari aurre eginez. “Doinuz eta hitzez” lelopean burutu den aurtengo Herri Urratseko antolatzaileak gustura azaldu dira aurtengo festarekin. Gauza bera esan daiteke Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkartearengatik ere. Egun berean Bilbon Euskal Eskola Publikoaren X. Jaia ospatu zen. Aurtengo edizioa berezia izan da, ez baitu lurralde bateko guraso elkarte batek antolatatu, denek batera baizik, hots, Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteak. Aurtengo jaialdiaren leloa “Mugak gaindituz” izan da, antolatzaileen ustez 2001. urteak aukera paregabea ematen baitu horretarako, mugak gainditzeko.



Euskarazko murgiltze sistemaren ezarriko da Iparraldean

Jack Lang Frantziako Hezkuntzako ministroak hizkuntza gutxituen irakaskuntzarako murgiltze plana aurkeztu zuen apirilaren 25ean, eta aldeko zein kontrako iritzia agertu dira. Murgiltze plana zirkularra bidez egitea planteatzen da eta hainbat aldaketa aurkezten dira.

Bata eskualde hizkuntzen irakaskuntza eskolaritate osora hedatzeko xedea. Horretarako “eskualde hizkuntza irakasteaz gain, irakaskuntzarako tresna” gisa onartuko du lehen aldiz Frantziar Gobernuak.

Bigarrenik, gizartean irakaskuntza elebidunaren berri zabaltzeko arduratu Hezkuntza Nazionalak, eta jadanik hitz eman bezala, irakasleentzako lehia-keta berezi bat ziurtatuko du, irakasle berak bi hizkuntza ezberdinetan irakasteko aukera zabalik utziko badu ere.

Beritasun nagusia, eskola publikoari ezarritako murgiltze sistemari dagokio: eskualdeko hizkuntza izanen da komunikazio hizkuntza, eta bestea ira-

kaskuntza ikasgai eta eskola bizitzarako.

Murgiltze sistema hau Seaskako ikastoletoarekin konparatuz ez da eskola osora zuzentzen, baizik eta klase batzuetara. Honekin eskoletan ez da ziurtatuko ingurune euskaldunik, klaseez aparte. Murgiltze sistema elebidun klasikoan, 10 urteko haurrei test bat burutuko zaie frantsesaren ezagutza maila neurtzeko.

Seaska eta Ikas-Bi gurasoen elkarteek lehendakariak pozik agertu dira, bata euskararen aldeko aitzinamenduak azpimarratuz eta bestea murgiltze ereduarekin sare publikoan eskaintzea goraiatuz. Hala ere, Seaskako lehendakariak “murgiltze ereduarekin” hiztegiaren erabilera oker bat dela azpimarratzen du, era berean, hori iruzur intelektuala dela. Oroitarazi zuen “D ereduak bermatzen duela euskara, irakaskuntzarako hizkuntza izateaz gain, bizi eta komunikazio hizkuntza dela ikastetxean”.

Hezkuntza Kontseilua, aldiz, murgiltze planaren aurka agertu da. Bere iritzia, ordea, ez da nahitaez bete beharrezkoa, aholku emalea besterik ez baita, eta Hezkuntza Ministeritzak bere jarrera aldatzeko asmorik ez duela iragarri du. Hezkuntza Kontseilua sindikatuek, irakasleek, ikasleen gurasoen elkarteek eta ikasleen ordezkariak osatzen dute. 22 kidek aurka bozkatu zuten, 18k alde eta bost abstenitu egin ziren. Kontra eta aldekoen alde txikia izatea baikortzat jo dute Ministerioak eta Ikas-Bik.

dagokiguna eskatzen jarraitzen dugu

Haurrak, azkarrenak ere, bere burua indarge eta ezereza ikusten du helduon munduan; hor ibiltzeko ez dauka ez indarririk, ez trebetasunik

Juan Kruz Igerabide



Eusko Jaurjaritza Madrildigo Unibertsitateko eta Lanbide Heziketako Lege proposamen berrien aurka agertu da

Espainiako Gobernuak aurkeztu dituen Unibertsitateen Erreformarako Lege proposamenaren eta Lanbide Heziketaren Legearen aurka agertu da Eusko Jaurjaritza. Lege horiek martxan jartzen badira auzitegietara joko duela iragarri du. Proposamenak “kezkgarritzat” jo ditu Inaxio Oliveri Hezkuntza sailburuak. Izaera “zentralizatzailea eta erkidegoaren aurkako” dutela salatu du, “homogeneizazioa” besterik ez dutela bilatzen. Hezkuntza sailburuak adierazi du “gutxieneko legeak” egitea eskatu ziola Ma-

drilgo Gobernuari, hau da, “gure eskuduntzak errespetatuko dituen eta Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen sistemetara egokitzea ahalbidetuko dutenak”.

Aitzitik, hori ez errespetatzeaz gain, sailburuaren iritziz Lanbide Heziketaren Lege berria LOGSErekiko “atzerapauso nabarmena” da.

Bestalde, bi lege proposamen horietan gelditu gabe, ikasleek egungo irakaskuntza sistema osoa jarri dute ezbaian. Ikasle Abertzaleak-en *Udaberri intsumitua* kanpainaren barruan, egungo irakaskuntza sistemari kontzientzia eragozpena egiteko prest dauden 15.130 sinadura bildu dira irakaskuntza ertaineko ikastetxetan eta hainbat fakultateetan. Batez ere bi egoera salatu dituzte. Alde bateetik, hizkuntzaren eskubideen zapalketa; milaka eta milaka ikaslek bere ikasketak euskaldunak izan gabe bukatzen dituzte. Eta bestetik, kultur eskubideen zapalketa; arrotzak diren curriculumak inposatzen zaizkielako.

Agintarien aldetik erantzunik ez zutela jasotzen ikusita, *Udaberri intsumitua* kanpaina jarri zuten abian desobedientzia kolektiboa bultzatu asmoz. Ildo horretan, intsumisio dinamikak areagotu egingo dira hementik aitzina, eta IAK bere alternatibaren berri ere emango du.

Nafarroako Gobernuak 99 milioi pezetako diru laguntza emanen du eskola liburuak gaztelaniatik euskarara itzultzeko. Lehen Hezkuntzako Ingurunearen Ezagutza arloko liburuak itzultzeko eta argitaratzeko izango da diru hori. 11,7 milioi pezeta emango ditu jadanik Hezkuntza Departamentuaren oniritza duten ikasliburuak itzultzeko, eta material berria kaleratzeko laguntza 8,1 milioi pezetakoa izango da. Laguntza horiek jasotzeko liburuek baldintza bat bete beharko dute: Nafarroako curriculum ofizial guztietan ezarritako eduki, jarrera eta prozedura guztiak bere baitan biltzea. Gobernuaren asmoa 2001/02 ikasturterako liburuak prest edukitzea da.

Euskal Editoreen Elkarteak balorazio ezkorra egin du foru aginduaren gainean. Bere ustetan garbi dago Espainiako argitaletxe handien alde egin nahi duela Gobernuak. Horrez gain, apustua ez dela sorkuntzaren aldekoa dio, itzulpenaren aldekoa baizik. Izan ere, itzulpenetarako diru gehiago ematen du.

Bestalde, horrelako presarekin ibiltzea ere ez dela seinale ona gaineratu du, arrazoi politikoak alde batera utzi eta eragileak hartu behar direlako kontuan, hots, editoreak eta irakaskuntzako partaideak.

Etorkinak eskolan

Elkarbizitza bideratuz



Gaur egun gero eta gehiago hitz egiten da kultur aniztasunaz, plurikulturaz, etorkinez, integrazioaz, arrazakeriaz... Ikastetxetara ere heldu da egoera horiez hausnartzeko unea. Gero eta ikasle etorkin gehiago dago Euskal Herriko ikastetxetan eta horien integrazioa eta egokitzapenaren inguruko kezka zabaltzen ari da. Nola integratu ikasle etorkinak? Nola egokitu? Nola landu beraiekiko errespetua eta onarpena beste ikasleekin? Nola hezi? Zein modutara bideratu elkarbizitza?

Denon buruan dabilen galderak dira eta batzuk eguneroko jardunaren bitartez erantzunak bilatzen ari dira. Horren lekuko dira, besteak beste, Bizi dezagun aniztasunaren aberastasuna izeneko topaketak, Intxaurren ikastolako elkartasun proiektuak edo Legorretako Ugaro eskolako integrazio eta egokitzapen esperientzia. Guztioi ikasteko balioak diguten esperientziak dira.



Mestizaiaren inguruko zehazkizun batzuk

Fito Rodriguez

EHUko Pedagogia Fakultateko irakaslea



Hastapenetatik kulturen arteko berezko egoera mestizaia dela baieztatzerik badago ere (nekez uler baitaiteke barne gatazkarik gabeko kulturarik edota inolako elkartrakerik ez duen gizarterik), kultur gutxiagotutako gizakiok ongi baino hobeto dakigu jakin kultur ukipen egoeratan ahulena dela, mestizaia medio, desagertu ohi dena. Horrexegatik gai honetan, beste askotan bezala, geure baitatik pentsatzen hasteko premia badago geroni gertatzen zaiguna behar bezala ulertu ahal izateko.

Horrela, gizarteetan kulturantzatasun, plurikulturatasun eta kulturartekotasun egoerak egon daitezkeela argitu beharko genuke.

Kulturantzatasunarekin egoera jakin baten berri ematen dugu, non kul-

tura bat baino gehiago antzeman daitekeen. Beraz, kontzeptu deskriptiboak soilik litzateke.

Plurikulturatasunak, berriz, gizartearen agertzen diren kultura guztiak maila beretsuan onartzen ditu. Horren arabera, beraz, bertakoek nahiz etorkinek mota guztietako hiritartasunari dagozkion eskubide berdinak edukiko litzuzkete. Kontzeptu arautzailea dugu.

Kulturartekotasunaren bidez kulturen bidezko elkarren arteko eragina areagotuko litzateke puzzle baten antzera kultur bakar polifazetikoa eraikiz. Kontzeptzio sintetikoa da beraz.

Kontzeptualizazio hirukoitz horiek, aldiz, praktikara eramanez daitezke ikuspegi etnoidentitario/etnozentrikoaren arabera, modu komunikatiboak bultzaturik edo era erlatibistak jota.

Lehenengoaren arabera, **asimilazio kulturala** lortu nahi izaten da. Hau da, kultura jakin bat gordez kanpotik datorren guztia bertaratu egiten da besteak dakarren pisu kulturala ezabatuz.

Bigarrenean, berriz, kultura guztiek nonahi garatzeko duten eskubidea aldarrikatuz, ondorioz sortzen diren **mestizaiak** hasieratik helburu gisa planteatzen dira.

Hirugarrenean, ordea, testuingu-



ruetatik at eta askotan gainetik, kultur egoera denek iraunarazteko duten aldarrikapenarekin batera mota guztietako **tradizionalismo** estiloari onepena ematen zaio.

Aipaturiko hiru kontzeptu eta hiru egoera nahastuz gero, hainbat aukera geratzen zaizkigu begien bistan:

- Etnozentrismoa + kulturartekotasuna: asimilazioa.

- Etnoidentitarioa + plurikulturatasuna: lurraldetasunaren defentsa.

- Kulturartekotasuna + erlatibismoa: besteen ezaguera eta jatorrizko kulturaren desagertzea.

- Erlatibismoa + plurikulturatasuna: gizarte kulturantzina helburu duena.

- Komunikatiboa + kulturartekotasuna: mestizaia garbia. Gizarte krioloa.

- Komunikatiboa + plurikulturatasuna: xede bezala gizarte aldakorra duena.

Honen aurrean, hala ere, gogoratu beharra dago mestizaiak, kriolizazioak edota gizarte kulturantzina ez direla kultur harreman berdintsuen arteko ondorio, kultur indartsuenak inposatutako eredu jakin baten emaitza zuzenak baizik. Horregatik, eta azalderietatik urrun, geurea bezalako kulturak lortu beharrekoa ustezko erlatibismo liberaletatik at ibiliz gauzatu beharra dago.

Kultura guztien artean betidanik eta betiko elkarren arteko eraginak badaude ere, egun kultura gutxituen aldarrikapenak gizarte garaikidearen botere egiturari zuzen jotzen dion neurrian, kultur etnoidentitarioaren aldeko borroka gizarte zuzenagoa eraikitzen laguntzen duelakoan gaudete. Norberaren kultura nahiz gizarte eraldatuz plurikultura izan behar den joeran, baina ere berean, gainerako kulturengan zapalketaren aurkako noziketa ere hedatuz. Herrigintzan arituz gizarte aldatzeak Euskal Herriko tenorean hezkuntzan jardutea eskatzen du. Zehazkiago, heziketa multikulturala areagotzea, hain zuzen. Hori da langintzan honetan etorkinen ekarpena.

Bizi dezagun aniztasunaren aberastasuna



Azken urteotan talde ugari ari dira lanean immigrazioaren, arrazakeriaren eta kultur aniztasunaren inguruan. Ekimen horietako asko, oro har, gizartera zuzenduta dauden arren, beste zenbait ikastetxeentzat prestatuak daude. Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan tailerrak eta topaketak antolatzen dituzte urtero SOS Arrazakeria, Mugarik Gabe eta beste hainbat taldek. Ikasleei zuzenduriko topaketa entzuzetsuen eta antolatuen Bizi dezagun aniztasunaren aberastasuna izenekoa da.

Gipuzkoan duela 6 urte hasi ziren programa honekin. Aurten Lasarte-Oriako ikastetxe batean burutu da eta astebetean 27 ikastetxetako 1.350 ikasle pasa dira. Arabako Gasteizen burutu zen martxoan eta 600 ikasle pasa ziren aurten. Nafarroan duela bost urte ekin zioten eta ikasturte honetan 19 ikastetxetako 1.200 ikasle hurbildu dira hiru astetan zehar. Bizkaiko kasuan astebetean 11 ikastetxetako 500 ikasle inguruk hartu du parte.

“Bizi dezagun aniztasunaren aberastasuna” programa 12-16 urteko gazteei zuzendua dago. Helburua hainbat kultura ezagutzea, kultura

horietako pertsonak ezagutzea eta enpatia lortzen saiatzea da, hots, pertsona bezala ez garela hain desberdinak ikusaraztea. Desberdintasuna zein aberatsa den erakutsi nahi dute programa honen bultzatzaile eta antolatzaileek, eta desberdintasun ho-

**“Dena dela, mui-
nean arazoa zera
da, Amunarrizen us-
tez: “Kultur arteko
aberastasuna arazo
bezala bizitzen
dela, eta ez dela be-
netan horrela. Ez
du zertan arazo i-
zan behar”**

G

G A I A

Etorkinak eskolan

Elkarbizitza bideratuz



rien gainetik pertsonak eta horiengana errespetua daudela.

SOS Arrazakeria taldeak ikastetxe- eta kultur aberastasuna, inmigrazioa eta arrazakeria bezalako gaiak ez zirela batere lantzen ikusi zuen. Gabezia horren jakitun izanik, beste zenbait talderekin harremanetan jarri ondoren, elkarrekin lanean hasi ziren. Horrela, Kataluniatik aipatu programa e-karri zuten eta Euskal Herrira egokitu. SOS Arrazakeria taldearekin batera aritzen direnak gaur egun Mugarik Gabe eta ijito talde bat dira batez ere, baina Traperos de Emaus eta beste hainbat taldek ere laguntzen diote.

Programa osoak hiru aldi ditu: ikastetxeetako hasierako lanketa, kulturen arteko topaketa eta ondorengo ebaluazioa. Mugarik Gabe taldeko kide den Junkal Amunarrizek hiru zatia xehetasunez azaldu dizkigu. *“Lehendabizi Hezkuntza Sailaren bitartez programaren informazioa bidaltzen da DBHko ikastetxe guztietara eta nahi duenak izena ematen du. Hori-ekin bilera bat egiten da eta material didaktiko bat banatzen zaie eskolan bertan arrazakeria, inmigrazioaren arazoa eta kulturen arteko aberastasuna landu dezaten”*. Aurreko urteetako esperientzian oinarriturik, ikastetxe askok lan hori ez zutela egiten ohartu dira. *“Hori dela-eta, aurtun gu geu eskolara joan eta zenbait dinamika eta joko egin ditugu aurreiritziak lantzen joan daitezten”*.

Lehen lanketa horren ondoren kulturen arteko topaketak egiten dira. Hau da, antolatzaileek ikastetxe batean “saloia” prestatzen dute. Astebetez programan parte hartzen duten ikastetxe guztiak pasatzen dira bertatik e-

“Pixkanaka-pixkanaka eskolako ekintza arrunta izatetik zeharlerro bezala lantzera pasatzen ari direla oihartzun gara, eta horrek asko pozten gaitu, hori baita gure helburua azken finean”



ta goiz bat igarotzen dute bertan. Baina zer da “saloiá”? “Ikastetxe batean prestatzen dugun kulturen arteko topaketa da” diosku Amunarrizek. *“Lau kultur gune antolatzen ditugu bertan: magrebiarra, ijitoena, Afrika Beltzekoa eta latinoamerikarra. Kultura bakoitzeko hiru tailer prestatzen ditugu eta hona etortzen diren ikasleek kultura horietako gauzak ikusteko eta ezagutzeko aukera dute”*. Adibidez, magrebiar tailer batean hango kulturari buruz hitz egiten diote, beste batean arabiar alfabetoa erakusten dute eta hirugarrenean henna nola egiten den ikasten dute. Afrika Beltzeko tailer batean hango dantzak ikasten dituzte, beste batean perkusioa jotzen ikasten dute eta azken batean hango ohiturak ezagutzen dituzte. Ijitoen tailerrean flamenkoa ezagutzeko parada izaten da. Azkenik, latinoamerikar tailer batean dantzak ikasten dira, beste batean sukaldaritza eta hirugarrenean zenbait ohitura.

Tailerrak taileristen ardurapean daude, hots, taileristak dira aipatu gauzak erakustez eta azaltzeaz arduratzen direnak. Kultura horietan jaió eta bizi diren pertsonak izaten dira. Horrela, magrebiar kulturen magrebiarrak daude, ijitoen gunean ijitoak, eta besteetan ere gauza bera.

Ikasle bakoitzak topaketara etorri aurretik aukeratu behar izaten du zein kultura ikusi nahi duen. Beraz, bakoitzak gehien gustatzen edo interesatzen zaiona hautatzen du. *“Aukerake-*

Desberdintasuna zein aberatsa den erakutsi nahi dute programa honen bultzatzaile eta antolatzaileek, eta desberdintasun horien gaineratik pertsonak eta horien ganako errespetua daudela

tarekin batera kultura horretako agurra ikasi behar izaten dute” gaineratzen du Amunarrizek. *“Izan ere, guretzat hainbesteko garrantzirik eduki ez arren, hainbat kulturatan oso garrantzitsua da agurra eta aurkezpena, oso garrantzitsua da sarrera ona edukitzea hango jendearekin”*.

Saio hauetan bospasei ikastetxetako ikasleak biltzen dira eta hasieran joko batzuk egiten dituzte; ezagutza, kooperazio, komunikazio eta diskriminazio jokoak. *“Aniztasuna oso a-*

beratsa dela eta errespetuak garrantzi handia duela erakutsi nahi izaten diegu hasieratik”.

Bakoitza bere tailerretatik pasa ondoren, bukatzeko denak elkartu eta ordubeteko jaialditxo bat egiten dute. Jaialdian, besteak beste, kultura horietako musika jartzen da eta jendeak ikasitako dantzak dantzatzen ditu.

Irakasleek ere ikasleekin batera tailerretan parte hartzeko aukera dute, *“eta guk nahiago izaten dugu parte hartzea, beraiek ere ikus eta bizi dezaten kultur aberastasun hori, eta gero gelan landu dezaten”*. Irakasleen erdiak edo %60k hartzen omen du parte normalean.

Topaketan egon ostean, programaren hirugarren zatia ikastetxean burutzen da, hots, ebaluazioa. Ikasle bakoitzak kultura, tailer eta pertsona ezberdinak ezagutu dituzenez, horren berri ematen diote elkarri. Bizi izan duten esperientzia elkartrukutzen dute. Horrekin batera, zenbait galdera ematen zaizkie. *“Ateratzen dituzten ondorioak guri bidaltzen dizkigute eta guk ere balorazioa egiten dugu”*.

Emaitzak hobetuz doaz

“Bizi dezagun aniztasunaren aberastasuna” izena duten topaketa hauetara urtez urte ikasle gehiago hurbiltzen da. Gipuzkoan aurtengoa seigarren urtea da, eta hasieratik hona gauzak hobera aldatu dira. Alde bateatik, ikastetxe parte-hartzaileen kopurua bikoiztu egin da; gero eta interes handiagoa nabaritzen da. Bestetik, gaiari eta ekintzari berari garrantzi handiagoa ematen zaio. *“Izan ere, hasieran irteera bat bailitzan etortzen ziren asko, eta guk ez dugu horrela planteatzen, lan serio bat bezala baizik. Pixkanaka-pixkanaka eskolako ekintza arrunta izatetik zeharlerro bezala lantzerá pasatzen ari direla ohartzen gara, eta horrek asko poztzen gaitu, hori baita gure helburua azken finean”*.

Gipuzkoan bezalaxe, Araban ere astebate irauten dute topaketok. Gasteizen antolatzen dira eta aurtén 600 i-



kaslek izan dute aukera beste kultura bat ezagutzeko. Nafarroan, oster, hiru aste irauten du. Ikasturte honetako "saltoa" n 1.200 ikaslek hartu dute parte, eta urtean zehar ere gida baten bidez gaia landu dute. Bizkaian, aldiz, ez dute lau kulturen inguruan antolatzen "saltoa", bakar batean baizik. Hau da, aste horrek gai monografikoa izaten du. Diego Jauregi Bizkaiko SOS Arrazakeriako arduradunak esan digunez *"gai monografiko bat aukeratzeko, kultura bakar bat, eta horren inguruko panelak, historia, informazioa, tailerrak eta abar antolatzen ditugu"*. Azken urteetan ijitoen kultura landu dute. *"Behin baino gehiagotan landu dugun kultura da, baina premia dagoela ikusten dugulako. Arrazakeria handiena ijitoekin dago eta hori landu beharra dagoela ikusten dugu"*. Beraien lanaren helburua da ijitoek beren kultura errekonozitua ikustea eta besteek kultura hori ezagutzea.

Boluntario lana

Programa hau hainbat boluntarioen lanari esker ateratzen da aurrera batik bat. Hezkuntza Sailak kulturen arteko topaketa egiteko egoitza eskaintzen die eta Foru Aldundietatik eta udaletatik ere diru laguntza jasotzen dute. Gainerakoa aipatu taldeetan boluntario moduan dabilten begiraleen eskuetan gelditzen da. *"Baina egiten dugun lana ez da nahikoa, irakasleen kezka eta noraezari ez baitiogu guztiz erantzuten"* dio Amunarrizek. *"Sarritan irakasleak laguntza eske etortzen zaizkigu, Hezkuntza Sailak ez diela ezer eskaintzen eta galduak daudela esanez. Ni, kasualitatez, pedagogoa naiz, baina gainontzekoak ez, bakoitza bere mundutik dator. Horregatik, Hezkuntza Sailak lagundu beharko lukeela pentsatu izan dut beti"*. Dena dela, muinean arazoa zera da Amunarrizen ustez: *"Kultur arteko aberastasuna arazo bezala bizitzen dela, eta ez dela benetan horrela. Ez du zertan arazo izan beharrik"*.

G A I A

Etorkinak eskolan

Elkarbizitza bideratuz

G



JOUNES TALAIN. Tailerista.

"Kultura eta jatorriaren aurretik, denok pertsonak gara eta pertsona bezala errespetatuak izan behar dugu".

Magrebiarra da eta urte eta hiru hilabete daramatza Euskal Herrian. "Bizi dezagun aniztasunaren aberastasuna" programako kulturen arteko topaketan magrebiar gunean hartu du parte, zehazki elkarbizitza tailerlean.

Zer egiten duzue zure tailerlean?

Maroko nolakoa den azaltzen diegu ikasleei, hango kultura, tea, bizi-modua... Hori guztia haima batean egiten dugu, hots, taileraren dekorazioa haima bat da. Haima kanpin dena handi baten antzekoa da eta Marokoko etxebizitza mota bat da.

Zerhelarazieta erakutsi nahi duzue tailer honekin? Zer lortu nahi duzue?

Denok antzekoak garela erakutsi nahi diegu, hangoek eta hemengook uste baino desberdintasun gutxiago ditugula. Denok elkarrekin bizi behar dugunez, elkartu egin behar dugu. Berdin du nongoa izan; Marokokoa,

Afrikakoa edo Euskal Herrikoa. Kultura eta jatorriaren aurretik, denok pertsonak gara eta pertsona bezala errespetatuak izan behar dugu.

Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu tailerlean?

Nik gaztelaniaz. Etorri nintzenen, orain dela urte eta hiru hilabete, frantses pixka bat nekien, baina gaztelaniarik ez. Kanean ikasi dut jendearekin, eta oraindik ondo hitz egiten ez badut ere, oso azkar ikasi dut.

Aurten tailerista bezala gauden guztiok gaztelaniaz badakigu, baina aurreko urteetan denek ez zekiten. Horrela, ahal zuten moduan moldatzen ziren: magrebiarrez, gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez, euskaraz... Era batera zein bestera, komunikatzea lortzen zuten.



EUKENE MONDRAGON. Irakaslea

"Gero eta kanpotar gehiago etorriko dira eta eskolak gertatu egin beharko du erantzun ahal izateko"

San Frantzisko Xabier ikastolako irakaslea da eta lau zapabost urte daramatza programa honetan parte hartzen. DBHko 2. mailako ikasleekin etortzen dira kulturen arteko topaketara.

Ikastolan lantzen al dituzue kultur aniztasuna, inmigrazioa eta arrazakeria?

Bai, Etika edo Giza Hezkuntza ikasgaia ematen dugu eta hiruhilabete batean Talde Diskriminatua, eta Arrazismoa edo Baztertuta dauden taldeak gaia lantzen dugu. Gizartean, oro har, eta eskolan bereziki, zein talde dauden diskriminatuta ikusten dugu. Helduok bakarrik ez dugula diskriminatzen kontura daitezen nahi izaten dugu, hau da, ikastolan bertan ere horrelako kasuak gertatzen direla.

Orokorrean programako lau kulturak lantzen ditugu, eta hainbat gauza esplikatzeko eta azaltzeko dizkiegu: gaur egun Euskal Herrian txertatuta dauden kulturak direla, zergatik etortzen diren, zergatik errefuxiatzen den jendea, bere herrialdeetik zergatik izaten duen irten beharra... Hori lantzeko rol jokoak egiten ditugu, horrelako egoeratan nola sentitzen garen ikusteko. Helburua da Euskal Herrian beste kultura batzuk ere badaudela ikustea eta errespetatu dituzaten lortzea.

Eta lortzen al duzue?

Batzuetan bai, eta beste batzuetan ez. Bigarren kasu horietan estereotipoak edo aurreiritziak oso barneratuta dauzkatelako izan ohi da. Dena dela, topaketan egon ondoren batzuk txipa alda dezaten lortzen dugu, eta beste batzuk "beno, ez dira hain desberdinak" esatea.

Kultura batekin zein bestearekin gauza bera gertatzen al da?

Ez. Magrebetik datozenekin, Afrikakoekin, latinoamerikarrek edo saharauiarrek ez da arazorik izaten, Arrasaten ez daudelako hainbeste. Baina ijitoekin bai. Herrian ika-mikak egon direnez, aurreiritziak indartsuagoak dira eta ez dituzte hain erraz onartzen. Batzuek beren borondatez hautatzen dute ijitoen tailerra, baina zenbait kasutan bultzatu egin behar izan ditugu hori hauta dezaten.

Nola baloratzen duzue esperientzia?

Orain artekoa oso positiboa izan da, oso pozik etorri gara. Gainera, ikasle errepikatzaile batzuk ere etorri izan dira, eta beraiek izan dira beste ikaslidei tailerretan zer egiten den azaldu dietenak.

Ikastolan izan al dituzue edo ba al duzue kanpotik etorritako ikaslerik?

Bai, iaz hiru ijito errumaniar izan genituen. Momentu honetan Ukraina eta Georgiako ikasleak ditugu, eta baita Brasilgo eta Kubako bana ere. Baina ez da multzo handia, banaka batzuk dira. Dena dela, gero eta kanpotar gehiago etorriko dira eta eskolak gertatu egin beharko du erantzun ahal izateko, benetan oso garrantzitsua baita.

Nola jokatu duzue orain arteko ikasle kanpotarrekin?

Iazko hiru ijito errumaniarrek eduki genuen arazo handiena hizkuntzarena izan zen. Frantziatik zetozen eta frantses pixka bat bazekiten, beraien hizkuntzan hitz egiten zuten, Arrasaten ikasitako gaztelania apurra zekiten, eta euskaraz batere ez. Orduan, nola integratu ikasle horiek gela? Gainera, etorri zirenerako abendua zen eta ikastolako errekurtsio guztiak banatuta geneuzkan. Ezin genituen gela batean ulertzen ez zuten hizkuntza bat sei orduz aditzen eduki. Ordu asko pasa genituen gauzak antolatzen, hainbat guraso konbentzitzen... eta izugarritzko mugimendua egin genuen hiru ikasleak egokitzeke. Eta... maiatzean joan egin ziren. Eta hori da ijitoekin gertatzen den beste eragozpen bat: alde batetik bestera mugitzen direla, egun batean etortzen direla, hurrengo bietan ez eta hurrengoan berriz bai... Gainerako ikasleei ere zaila egiten zaie hori ulertzea.

Horregatik, ondo pentsatu behar da nola egin integrazioa. Berdin du bat edo ehun etorri, bakarrak ere izugarritzko desoreka sortzen du-eta. Bai eskolak eta bai guk prestatu egin behar dugu.

“Berdin du bat edo ehun etorri, bakarrak ere izugarritzko desoreka sortzen du-eta. Bai eskolak eta bai guk prestatu egin behar dugu”



G

G A I A

Etorkinak eskolan

Elkarbizitza bideratuz

Elkartasuna da abiapuntua

Donostiako Intxaurrondo ikastolan

Donostiako Intxaurrondo ikastolan duela zazpi urte inguru hasi ziren elkartasuna eta berdintasuna balioak lantzen sexu, arraza eta desberdintasunen gainetik. Ikastolako zenbait irakaslek osatutako Elkartasun departamentua izan zen lan hori martxan jarri zuena. Gaur egun, departamentuko kide Maite Berzosa, Mikel Ruiz de Larrinaga, Jon Ibarzabal, Iaki Markotegi, Garbi e Barrenetxea, Jaione Ziarsolo eta Tere Briongosen ardurapean jarraitzen dute arlo horri lotutako proiektuek.

1994an El Salvadorreko Segundo Montes komunitatearekin hasitako harremanek tinko jarraitzen dute momentu honetan. Bi herrialdeetako eskoletako irakasle eta ikasleen arteko elkartasun harremana gero eta estuagoa da. Horrez gain, Intxaurrondo ikastolan Mundilab proiektua lantzen ari dira, eta ikasturte honetan Saharako kultura ezagutu dute. Elkartasunaren bidea irekitzen hasi ziren, eta hori sendotu ahala, kultur aniztasuna errespetatzeko eta integrazioa bideratzeko urratsak ematen ari dira.

Intxaurrondo ikastolaren eta El Salvadorreko Segundo Montes ko-



munitateko eskolaren arteko harremana 1994ean hasi zen Hango zenbait pertsona Donostiara etorri ziren beren proiektuetarako diru laguntzak eskatzera. Pertsona horiek Intxaurrondo ikastolan izan ziren komunitateko berri emateko eta hango hezkuntza sistema nolakoa zen azaltzeko. Hemengo irakasleak eta ikasleak oso interesatuta sentitu ziren, eta hango errealitatea hobeto ezagutzeko zenbait ekimen martxan jarri zitezkeela ikusi zuten. *“Horrela, postatrukea jarri genuen martxan”* dio Elkartasun departamentuko kide Maite Berzosak. *“Hango eta hemengo ikasleak elkarri gutunak idazten hasi ziren. Gero, bigarren urrats batean irakasleok ere gauza bera egiten hasi ginen, irakasle on arteko postatrukea”.*

Poliki-poliki ekimen gehiago sortu ziren, betiere hango irakasleek ziztuzten beharrei erantzuna emateko. *“Horren haritik, Aste Santuko osporretan hemengo bi irakasle harajotaten hasi ginen beraiek eskatutako gaien inguruko formazioa eta prestakuntza ematera”* dio Berzosak. Besteak beste gai hauetako prestakuntza eskatzen zuten: Haur eta Lehen Hezkuntzan irakurketa eta idazketa, Haur Hezkuntzarako lan metodologia, ebaluazioa, zentroaren antolaketa, Haur eta Lehen Hezkuntzako bitartekoen Ezagutzaren Didaktika, Arte Hezkuntza, ikasketa teknikak eta talde dinamikak, autoestimua, aniztasuna eta hizkuntza idatzia. *“Egonaldi hauek eragin handia izan dute bai maila pertsonalean eta bai kolektibo-*

ki ere” dio Mikel Ruiz de Larrinaga Elkartasun departamentuko kideak. “Harremana estutu egin da eta erlazioa askoz zuzenagoa bihurtu da. Udan bi guraso animatu ziren hara joan eta Sexu Hezkuntza landu zuten irakasleekin eta gazteekin”. Bestalde, handik hona bi irakasle etorri ziren iaz hemengo esperientzia eta lan egiteko modua ikustera. “Lorpen handia izan zen” dio Jon Ibarzabal talde kideak. “Guk beti esaten genien etortzeko eta ez ziren ausartzen. Pentsatzen zuten



ez zirela gai izango hemen jasotakoa han transmititzeko. Baina azkenean etorri ziren eta esperientzia benetan aberatsa izan zen”.

El Salvadorrekiko elkartasuna lantzeko proiektuaren barnean beste hainbat ekimen eta kanpaina burutu dituzte: eskola liburu eta materialen jasoketa, diru laguntzen jasoketa, hitzaldiak, sentsibilizazio kanpainak, bideoak egin dira... “Ikasle zein gurasoek gaia serio hartu dute eta oso sentsibilizatuta daude” azpimarratzen du Berzosak. “Guztien inplikazioa lortu dugu eta hori oso garrantzitsua da. Hondamendiren bat gertatzen denean ikasleek ez ezik gurasoek ere galdetzen digute ea ikastolan ez dugun ezer egin behar”. Iñaki Markotegik gehitzen du “zenbait haurrek material ugari ekarri izan dute etxetik. Benetan lorpen handia da gurasoak hainbeste inplikatzeara”.

Mundilab proiektua iritsi zen

El Salvadorreko proiektua garatuz, sendotuz eta osatuz doa, baina esparru hori zabaldu egin zaie Intxaurrondo ikastolan. Izan ere, iaz Hegoa GKEk bideratzen duen Mundilab proiektuan sartzeko eskaini zieten. Balioak eta interkulturalitatea lantzeko aukera eskaintzen zien proiektu honen muina laborategia da, hots, ikastetxean bertan muntatzen den laborategi berezia. “Bai, berezia da” dio Markotegik. “Beste lurraldeetako informazioa, mapak, bideoak, diapositibak, aldizkariak eta beste hainbat gauza daude laborategian, guztiak zeharlerroak eta balioak lantzeko. Ez da ohiko laborategia, eta bertara lanera doan irakasleak hori argi eduki behar du. Laboretagera joateko egutegi bat egin daukagu eta normalean tutoritzako gaiak lantzeraz joaten gara.”

“Oso garbi genuen El Salvadorrekoa ez genuela baztertuko, horrekin jarraituko genuela, baina aldi berean, beste era batera hasi behar genuela lanean” dio Berzosak. “Balioei eta zeharlerroei beste modu batera heldu behar genielako ikusi genuen, eta pix-

kanaka-pixkanaka hori dena Hezkuntza Proiektuan sartzen joan behar genuela”.

Hautatutako herrialdea: Sahara

Mundilab proiektuaren bidez interkulturalitatea landu nahi zuten Intxaurrondon, baina ez zeukaten oso argi nondik eta nola hasi. “Geroz eta etorkin gehiago bizi dira gure inguruan eta aniztasun horrek suposa dezakeen aberastasunak ezagutu nahi ditugu, errespetatu ahal izateko. Hori dela-eta, aurrean saharar herriaren kulturaren murgildu gara eta hurrengo urtean erronka berriei aurre egitea eta beste kultura batzuk lantzea da gure asmoa”.

Horrela, martxotik apirila bitartean Saharako kultura ezagutzeko hainbat ekimen eraman zituzten aurrera. GKEetatik material ugari jaso zuten, batez ere Hirugarren Mundua eta Pakeatik. Ikastolaren sarreran sasi-jaima bat muntatu zuten Saharari buruzko informazioa bildu zutelarik. Ikasleekin gaia lantzeko unitate didaktiko bat osatu zuten eta martxoan zehar tutore bakoitzak bere ikasleekin landu zuten. Unitate honekin ikasleek zer zekiten ikusi zutne, nola imajinatzen zuten Sahara eta pixkanaka-pixkanaka hango errealitatea ezagutzen joan ziren. Prozesu horri apirilean eman zioten amaiera ikastolan jaima bat muntatu zutelarik. Hemen bizi diren sahararaiarrak etortzen ziren ikasleekin egotera eta hango kulturari buruzko gauzak kontatzen eta erakustera. Sahararaiarrekin hitz egiteko, egoteko eta galderak egiteko aukera izan zute bai ikasleek eta baita gurasoek ere.

Ikasturte honetako lanik nagusiena hori bukatu bada ere, Elkartasun departamentuko kideen erronka ez da horretara mugatzen. “Hori guztia Hezkuntza Proiektuan txertatua egotea eta benetan eguneroko eginbeharretako bat izatea nahi dugu. Eta neurri batean lortzen ari garela uste dugu”.

Egokitzapena eta integrazioa Legorretako Ugaro eskolako esperientzia

Legorretako Ugaro eskolan ikasturte honetan errusiar ikasle bat hasi zen. Iazko maiatzean etorri zen Legorretara bizitzera eta irailan hasi zen eskolan. Ikaslea ahalik eta hobekien egokitzeko eta integratzeko hainbat urrats eman dituzte eta tutorea, itzultzailea zein ikastolako beste kideak gustura daude lortu dutenarekin: 10 urteko ikasleak euskaraz hitz egiteko, idazteko eta irakurtzeko gaitasuna lortu du hilabete gutxitan eta gelan oso ondo integratu da.

Mirari Arregi
Tutorea

Zer egin zenuten errusiar ikasle bat izango zenuela jakin zenuenean?

Heziketa Bereziko irakaslea eta ni gaia bideratzen hasi ginen iazko kurtsu amaieran, eta gero zuzendariarekin eta itzultzailearekin jarraitu genuen. Egokitzapen lana nola bidera genezakeen hasi ginen aztertzen.

Horrela, ikaslea irailan hotz-hotzean gelara etorri aurretik beste ikasleekin girotze lan bat egitea erabaki genuen. Ikasle berri bat etorriko zela azaldu genien, nondik zetorren, zertara zetorren... Girotze lan horrekin nolabait i-



kasleak inplikatu egin nahi genituen, beharrezkoa zela ikusten genuelako. Errusieraz jakingo zuela azaldu genien eta euskaraz ez; eta beraz, denon artean lagunduz errazago egokituko zela eta ikasketetan ere hobeto ibliko zela. Ikasleak protagonista sentitu ziren eta oso ondo iruditu zitzairen.

Besitade, ikaslea gelara etorri aurretik gu bere bila joatea erabaki genuen, hau da, bere etxera joatea. Zergatik? Etxea duelako espazio ezaguna eta hor segurua sentitzen delako. Gelara etortzea oso hotza iruditzen zitzaigun eta familiaritate gure proposamenaren berri eman genion. Ondo iruditu zitzairen eta itzultzailea eta biok joan ginen.

Nolakoa izan zen bere etxean izan zenuen lehen kontaktua?

Hamaiketako prestatu ziguten eta oso ondo atera zen. Haurrari asko lagundu zion bere ama hizkuntza hitz egiten zuen norbait ikusteak. Hasieran





mesfidantza sortzen zaie; handik hona etorri eta errusiera dakien norabait topatzean zalantzan gelditzen dira. Baina ikastolan berarekin irakasle eta itzultzaile bezala egongo zela azaldu genionean segituan hartu zuen konfiantza.

Opari bezala gelako argazki bat eman genion. Dena dela, haurre ezagutzen zuten parkean ikusita. Gainera, arratsalde hartan bertan haur guztiak bere bila joatekoak ziren gero elkarrekin parkera joateko. Gelan aurretik egindako girotze lanaren ondorio izan zen hori, eta oso lagungarri suertatu zen.

Kurto amaieran jaialdi bat egin ohi dugu eta hara eta gonbidatu genuen. Gelara ere gonbidatu genuen eta hurrengo ikasturtean bere lekua izango zena, bere karpeta, bere apala eta abar erakutsi genizkion. Beste bat gehiago sentitu zen, onartua sentitu zen eta gauza horiek asko laguntzen dute integrazioan.

Aurretik girotze lana egin eta irailan ikasturtea hasi aurretik beste zerbait egin al zenuten? Zein izan zen hurrengo urratsa?

Udako plan bat egin genuen. Tarte horretan harremanak ez eteteko eta ikasturte hasieran prestatuta egoteko itzultzailearekin klase partikularrak prestatu genituen.

Eta irailan nolako izan zen eskolatzeari eta gelan sartzea?

Udako lanaren ondoren kurtoan zehar hizkuntza arloan indar asko egin behar genuela ikusi genuen. Zeren hizkuntza garatu ahala beste guztia garatzen joango zela ohartzen ginen. Irailean konturatu ginen ez zituela ez hemen go eta ez hango alfabetoa ezagutzen. Orduan, helburuak oso argi ezarri geni-

tuen, batez ere hizkuntzarena, euskara-rena. Hizkuntza garatzen bazen beste guztia ere garatuko zela ikusten genuen.

Horrela, Ainhoa itzultzailea eta biok elkarrekin jardun gara lanean kurto osoan. Erabat koordinatuta jardun gara eta hori oso garrantzitsua da. Asteran ordubete bildu izan gara gauzak antolatzeko eta jarraipena egiteko: zertan saiatu behar dugun gehiago, zertan ez, nola jokatu...

Berez 3. mailan hasi behar zuen, baina Goierriko PATekok kurto bat atzeratzea aholkatu ziguten, aurreko esperientzietan oinarriturik. Horrela, 2. mailan hasi zen. Hala eta guztiz, eraman duen prozesua ikusita, 3. mailan ere ederki ibiliko zela uste dugu; baina hori kusi eta gero esan dezakegu.

Nolako emaitzak izan ditu zuen lanak? Zer balorazio egiten duzue?

Emaitza oso ona izan da, gu geu ere harriritu gelditu gara. Irailtik Gabonak bitartean, hiru hilabetetan, irakurtzen ikastea lortu zuen, gai zen ipuintxo bat idazteko eta irakurtzeko. Euskaraz elkarriketa bat edukitzeko gai zen, nahi zeta aditz denbora guztiak ez menperatu eta akatsak eduki.

Nolako harremana izan duzue familiarekin?

Hasiera-hasieratik harremanetan egon gara familiarekin eta gure asmoen berri eman diegu beti. Edozein aldaketa edo gertaeren berri ematen diegu beraiek ere nola jokatu jakin dezaten. Jarraian oso baikorra izan dute beraiek, guk proposatutako egiteko prest agertu direlarik beti.

Zein arazo, hutsune edo beharrik aurkitu zarete?

Ama hizkuntza oso garrantzitsua dela pentsatzen dugu, pertsona batek ama hizkuntza uzten badu, bigarren hizkuntza ikastea oso zaila baita. Hori dela eta, bi hizkuntzak parekatu behar dira, eta horrek biei ordutegi berdina dedikatzea eskatzen du. Hori bideratzeko, orde, zailtasunak daude.

Bestalde, ama hizkuntzako material falta sumatu dugu. Administrazioak material curricularra badagoela esaten du, baina ez dago. Gure esku gelditzen da material bildu edo egokitzea ikaslen beharren arabera, et a horrek lan handia eskatzen du.

Administrazioa aipatu duzularik, nolako laguntza jaso duzue?

Laguntza minimoa izan dela esango nuke. Gai hau serio planteatu gabe dauka administrazioak. Teorian ama hizkuntza zaindu eta horretan saiatu behar dela dio, baina berak eskaintzen duen laguntzarekin hori ezinezkoa da. Administrazioak planteamendu bat egin beharra dauka. Izan ere, zenbaitek egin zizkiguten planteamenduak benetan desegokiak iruditu zitzaizkigun. Ulermen mailari ematen diote garrantzia, baina hori ez ezik, eskolatzeko ikuspegia ere aintzat hartzen dugu guk, euskalduntze ikuspegi batetik planteatutako eskolatzeko, alegia. Horrek, noski, gauza gehiago kontuan hartzea eskatzen du, eta ez ulermen maila soilik. Beste baldintza batzuk beharko lirateke. Kalkulu ekonomikoak besterik ez dituzte egiten, eta horialda heziketa ikuspuntu batetik planteatu daitekeena?

Zein izango lirateke baldintza horiek edo egin beharko litzatekeen planteamendua?

Serio planteatzeak eskatzen du diru gehiago inbertitzea lan horretan. Aniztasuna aldarrikatzen dute, baina hori ezin da teoria hutsean gelditu. Ez dut esaten ezer egiten ez denik; zerbait egiten ari dira, baina ez da nahikoa. Esaterako, etorkinei erantzuteko itzultzaile plantila eduki beharko luke administrazioak. Hemen gauden egoeran itzultzaileak eduki beharko genituzke. Baldintzak eta baldibideak jarri behar dira integratzeko.

Beslade, ikasle etorkinekin lanean ari garen irakasleon iritzia ezagutu beharko luke administrazioak. Eta ez iritzia soilik, baita zer arazorekin topatzen garen, nola gaintzen ditugun, zer material behar dugun... Horretaz ezer gutxi dakite eta hori jakitea funtsezkoa da.



Ainhoa Azurmendi
Itzultzailea eta
irakasle laguntzailea

Zein baldintza edo egoeratan egoten da itzultzailea eskolan?

Ni itzultzaile bezala etorri nintzen Legorretako ikastolara. Gipuzkoako Diputazioak eta Hezkuntza Sailak bideratzen duten laguntza da, Heziketa Berrintzailerako Partzuergoa deitzen zaiona. Hiru hilabeteko diru laguntza bat eskaintzen dute haur etorkinak integratzea. Denbora horretan minimo batzuetara iristen badira nahikoa dela esaten dute. Ondorioz, normalean hiruhilabetetan egoten gara itzultzaileak eskolan. Hilabete horietan egunean bi ordu egoten gara gelan.

Hiru hilabeteren ondoren balorazioa egiten da. Legorretako kasuan, balorazio ona egin genuen, baina askoz hobea izan zitekeela ikusten genuen eta laguntza luzatu egin ziguten, nahiz eta denbora erdira gutxitu, hots, eguneko ordu batera. Ez da denbora asko, baina gauzak egiten eta lortzen dira.

Zure lana udan hasi zela komentatu digu Mirarik? Zer egin zenuen?

Hilabete baten Vikarekin egon nintzen klase partikularrak ematen. Zenbait material lortu nuen: biribilak, koloreak, matematikako liburuak... Alfabetatu gabe zegoenez, alfabetoa irakasten hasinintzaion. Zenbakiak ere 39 arte zekizkien, ama hizkuntzan, noski; eta poliki-poliki euskaraz ere lantzen hasi ginen. Irailerako alfabetoa ezagutzen zuen.

Bitarate horretan familiak izan zuen jarrera azpimarratzekoa da. Gure pro-

posamenak adostu genituen eta beraien lanak zuen garrantzia azpimarratu genien. Edozer gauzarako prest agertu dira. Familiari euskaraz hitz egiteko eta euskara bultzatzeko azpimarratzen, eta irailerako euskaraz mintzatzeko gai zen.

Irailetik aurrera zer egin duzu gelan?

Hasierako hiruhilabetetan egunean bi ordu egoten nintzen gelan. Beste haurrekin batera gelako erritmoa jarraitzen genuen besteek egiten zutena eginez. Adibidez, matematikan buruketa bat irakurtzen nion euskaraz, gero errusierara itzuli eta ondoren buruketa egin.

Zer jokaera izan duzu hizkuntzekin? Noiz erabiltzen duzu errusiera eta noiz euskara?

Etapas desberdinak egoten dira. Hasieran harridurazko etapa izaten dute eta normalean zalantzak izaten dituzte. Bigarren etapam ama hizkuntza eta horrekin lotutako guztia ukatu egiten dute, ez dute ezer jakin nahi izaten errusierari buruz, Errusiarari buruz, ez dute hango konturik aipatu ere egiten, ez dute errusieraz hitzik egin nahi izaten... Dena hain azkarikasten eta barneratzen dute, ez dute errusieraz hitz egiten nahi izaten. Gero, hirugarren etapam, denbora pasa ondoren edo ulermen maila bat hartzen dutenean, berriz errusieraren gaineko interesa pizten zaie. Guk beraien ama hizkuntza oso garrantzitsua dela azpimarratzen diegu eta konturatzeko dira poliki-poliki. Euskara ikasi behar dute, baina ez beraien ama hizkuntza ahaztuz.

Gustura al zaudete egin duzuen lanarekin?

Bai, oso gustura. Ezarri genituen minimoak gainditu ditugu eta lortu duguna lortzea izugarria iruditzen zaigu; beste ikasleek duten maila lortu du.



G A I A
Etorkinak eskolan
Elkarbizitza bideratuz

G

joxe fernando garmendia

Ikasberri ikastolako irakaslea

A stylized, yellow, outlined letter 'E' is centered within a black rectangular box. The 'E' has a unique, geometric design with a horizontal bar at the top and a vertical stem on the right side.

Gipuzkoako Diputazioak argi
zeukan 1930eko auzo eskolen
plangintza aurrera eramateko
ezinbestekoa zela maisu-maistrak
aukeratzeko eskubidea izatea, horren
arabera baitzegoen euskarazko
hezkuntzaren garapena



Gizalegezkoa
zen euskaraz
irakastea, mendi
etxeetatik eta
baserrietatik
etortzen ziren
haurrek ez
zekitelako
gaztelaniaz

Agian zenbaitzuk ahaztuta izango dituzte aurreko mendeetako Gipuzkoako auzo eta bailaretako eskola txikiak, hots, mendi eskolak, eta baita 1930az geroztik Errepublikara garaietan sorturiko auzo eskolak. Gure herrietako bailaretan barmariatuta zeuden eskola horiek arakatzeari eta ezagutzeari ekin zion Joxe Fernando Garmendia irakasleak. EHUko bi urteko beka bat dela medio, 1900-1951 urteen artean eskola horiek izan zuten ibilbidea aztertzen ari da. Ikerketaren ondorioak tesi batean bilduko ditu: Gipuzkoako bailaretako eskola txikiak eta auzo-eskolak XX. mendean .

Zergatik hautatu dituzu ikerketa gai bezala Gipuzkoako bailaretako eskola txikiak eta auzo eskola?

Ikerketa ugari egin dira hezkuntzari buruz, baina Gipuzkoako auzo eta bailaretako eskola txikiak behar adina aztertu gabe zeudela ohartu nintzen eta interesgarria iruditu zitzaidan. Gure gurasoak eta aitona-amona gehienak eskola hauetan ibiliak dira, hauetan jaso baitzuten beraien lehen hezkuntza, hots, lau oinarrizko arauak eta doktrina. Irakaskuntza huranolakoa zen eta nola moldatzen ziren jakin nahi nuen.

Errepublikara garaietan eskola txiki hauen ereduak hobetu nahian Diputazioak sorturiko auzo eskolen proiektua ere aztertu dut.

Zein izan da ikerketaren abiapuntua eta kokapena?

Gipuzkoan kokatu naiz 100 urte atzera eginda. Hemengo bailara eta auzoetan oinarrizko irakaskuntza nola garatu zen aztertu dut, batez ere XX. mendearen hasieratik mende erdira arte.

Zein zen XX. mende hasierako eskolatze egoera?

Alfabetatze maila baxua zen; Gipuzkoako herritarren ia erdia alfabetatu gabea zen, bereziki herri txikietan. Nekazal bailaretan eskolatzearen beharra ikusten zen, eta sarritan auzoetako haurren familiek, gurasoek, idatziak bidaltzen zituzten udaletara eskola irekitzeko diru laguntzak eta baimenak eskatuz. Kasuaren arabera udalen laguntza ere jasotzen zuten.

Zein ziren eskola txiki horien ezaugarriak?

Eskola horiek gehienetan baserrietan, bordetan edota eliza ondoko eraikuntzetan kokaturik egoten ziren. Irakasleak, berriz, inguruko emakumeak, sasiletratuak edo auzoko apaiz eta erlijiosoak izaten ziren. Zenbaitetan irakurtzen zekien bat izaten zen, ahal zuen bezala zekiena besteei erakusten zielarik. Batez beste presta-

kuntza murriztekoak ziren, titulurik gabeak, baina garai hartan esaten zen erdipurdiko maisu-maistra bat edukitzea hobea zela batere ez edukitzea baino. Irakasle horien lana ez zegoen ondo ordainduta eta askotan ofizio bat baino gehiago izaten zuten.

Maisu-maistra bakoitzak bere era irakasten zuen, eta gehienek euskaraz, mendi etxeetatik eta baserrietatik etortzen ziren haurrek ez zekitelako gaztelaniaz. Hortaz, lehendabiziko harremana euskaraz izaten zen eta ahal zena euskaraz irakasten zen. Arzoa euskarazko liburuen urritasuna zen. Jesusen Lehena, Katona eta doktrina liburuak ziren euskarazkoak. Denbora gehiena doktrina ikasten pasatzen zuten, kristau bezala zituzten betekizunak erakustea baitzen xedetakoa bat.

Batzuetan eskola horiek udalen laguntza jasotzen zuten, 100 edo 200 pezeta inguru. Beste kasu askotan gurasoek ordaintzen zuten, pezeta bat hileko, eta diru horrekin ordaitzen zen maisua edo maistra. Ez zen behar-

tzen eskolara joatea (nahiz eta legearen arabera beharrezkoa izan), eta baserrian lana egin behar izaten zutenean ez ziren joaten. 7-12 urte bitartean joaten ziren eskolara, eta hortik aurrera ikasten jarraitu nahi zuenak herriko eskolara joan behar izaten zuten.

Garai hartan euskarazko irakaskuntza bazegoela esan dezakegu, orduan?

Sistematikoki egituratu gabe egon arren, tradizioa egon da. Gerrate kartelistetan euskararen aldeko sugarra piztu zen eta gerra ondoren ere mantendu egin zen. Kontestu horretan, XIX. mende bukaeran euskararen aldeko jarrera nabarmena dago.

Bestalde, Gipuzkoako irakaskuntzaz hitz egitean, ezin dugu Espainiako irakaskuntzatik kanpo kokatu, neurri batean horrek baldintzatzen duelako. Era berean, Espainiako irakaskuntza ezin dugu Europa mendebaldeko kontestutik atera. Egoera horretan, estatu espainiarrak hezkuntza homogeneizaziorako jarrera du eta



horrek nolabait hemengo irakaskuntzaren garapena baldintzatzen du, nahiz eta askotan legeak paperean gelditu eta errealtatean beste gauza batzuk gertatu. Kontuan hartu behar dugu guk estaturik gabeko nazio bat osatzen dugula, eta bertako kultura eta tradizioetan oso erroturik egon gara. Hizkuntza eta kultura propioa dugu, eta horrek ezarri nahi izan den irakaskuntza baldintzatzen du.

Dena dela, Bizkaiko auzo eskolak izan ziren hemengo auzo eskolen



Gipuzkoako
bailaretako
eskola
hauetan
irakaskuntza
nola garatu
zen aztertu
dut, batez ere
XX.
mendearen
hasieratik
gerra zibilera
bitartean

aitzindariak, ezta?

Eskolatzea auzoetara hedatzeko Bizkaiko Diputazioak auzo eskolen eredu berria bideratu zuen.

Gipuzkoan prozesua ez da garai berean ematen. 1918an bailaretako eskola txikitak antolatu nahian oinarririk jartzen dira. Eskola horiek 1921ean ehundik gora ziren. Eskola txiki horietan euskaraz irakasten zuten, maisu-maistrak euskaldunak ziren-eta. 1926an auzo eta bailaretako berri jakin nahian inkesta bat egin zen. 1927an bailaretako eskola txikiei, mendi eskolei, buruzko arauak egin ziren. 1930ean aurrera eramango zen proiektuaren oinarri izan ziren arau haiek. Gipuzkoako auzo eskolen proiektua 1930eko abenduaren 28an onartu zuen Diputazioak.

Zertan datza, bada, 1930eko auzo eskolen proiektu hori?

Diputazioko Hezkuntza Batzordeak auzo eskolen sorrera, egituraketa eta administrazio proiektua aurkeztu zuen (Proyecto de Escuelas Rurales de Guipuzcoa). Proiektu horretan, lurralde honetako hizkuntza eta ohiturak kontuan izanik, plangintza berri, propio eta aurrerakoa bultzatu nahi izan zuen, beharrezko langileria eta-

baliabideak bere kargu hartuz. Udalen laguntza izan zuen eraikuntzak e-giterakoan eta baita Aurrezki Kutxa Probintzialarena ere.

Zer eginkizun ditu Diputazioak proiektu hori aurrera eramateko?

Diputazioak eskolen kokapena finkatzen du, udalekin batera eraikuntzaren ereduak erabaki, langileak eta beharrezko materiala izendatu, hezkuntza plana ipini eta ikuskaritzaz arduratu. Eraikuntzei dagokienez, eraikin berriak egiten dituzte; leku egokiak, argitasun handikoak, komun txukunak, frontoiak... Material alde-tik ongi hornitu ziren eskola horiek: mapak, barometroa, termometroa, josteko makina... Euskarazko testu liburu batzuk bazeuden; Katona, Txomin irakaslea eta Nekazaritzako Irakurraldiak erabiltzen ziren.

Bi eskola mota bereizten ziren; nekazal eskualdekoak eta eskualde mistokoak. Nekazal eskualdetan euskaraz soilik hitz egiten zenez euskaraz irakasten zen eta gaztelaniaren lehen urratsak ere bai. Eskualde mistoetan, berriz, irakaskuntza gaztelaniazkoa zen.

Irakasleak aukeratzeko oposizioak egin ziren. Irakasle izateko titulua-





edukitzea eta euskaraz jakitea ziren bete beharreko baldintzak.

21 eskola eraiki ziren, nahiz eta asmoa bost urtetan 100 eraikitzea zen. Eraikuntzak egiterakoan Diputazioak diru laguntzaren %25 ematen zuen, udalek %65 eta Aurrezki Kutxa Probintzialak %5a.

Diputazioak bere irakasleria propio hautatzen zuen oposizioak eginez, orduan?

Bai, hala da. Euskarazko froga gainditzea beharrezkoa izaten zen. Bi oposaketa egin ziren; lehenengoan 18 maisu-maistra hautatu ziren eta bigarrenean 11. Guztira 29 maisu-maistra eta ikuskari bat ziren Diputazioaren irakasleria propioa osatzen zutenak.

Irakasle horiek prestakuntza ikastaroak izaten zituzten eta eskulanetarako, laborategirako eta nekazal laneratarako prestatzen ziren.

Hori guztia eten egin zen gerra zibila etorri zenean 1936an.

Zer aldaketa ekarri zuen Franco-ren garaipenak?

Auzo eskolek ez zuten nortasuna eta indarra hartzeko denborarik izan. 1938ko apirilaren 18aren ondoren auzo eskola gutziak eskola nazional bihurtu ziren eta aldaketa bat baino gehiago ekarri zuen horrek. Ordura arte materialez ondo hornituta baldin bazeuden, hori bukatu egin zen. Altxamenduak uniformismoa ekarri zuen, eta Escuela Nueva deitu zitzaion ideologiak eskola guztia aldatu zuen. Euskara baztertu egin zen eta

horrek lehenengo arazo bera ekarri zuen: 1930ean auzo eta bailaretako haurrek gaztelaniaz ez bazekiten, 1936an ere ez.

Auzo eskoletan hainbat maistrak errepresioa jaso zuten, eta baita bailaretako eskola txikietakoek, mendi eskoletakoek ere.

Nola erreazionatu zuten Diputazioak eta euskal gizarteak?

Errepresioa gogorra izan zen arlo guztietan. Sistema politikoa erabat aldatu zen eta kargu politikoak ere bai. Hala ere, Diputazioan agintzen zutenak euskaldun, fededun eta tradizionalistak ziren. Kontuan hartzea da horietako batzuk parte hartu zutela auzo eskolen proiektuaren eraketan.

Maisu-maistra erdaldunak etortzen hasi ziren eta Diputazioa ez zegoen konforme fedegabeak eta euskarik ez zekitenak zirelako. Gerra bukatu ondoren berriro ere aurreko proiektuari eustea nahi izan zuten, baina arazo handi bat zegoen: maisu-maistrak aukeratzeko eskumena galdu egin zuen.

Argi zeukaten aurreko plangintza aurrera eramateko ezinbestekoa zela maisu-maistrak aukeratzeko eskubidea izatea, horren arabera baitzegoen euskarazko hezkuntzaren garapena. Horretarako ahalmunik ez izateak ia dena mugatzen eta baldintzatzen zuen. Etortzen ziren irakasle berriak euskararen eta lekua- ren ezagupenik gabekoak ziren. Orduan, eskolak eraiki eta maisu-maistra erdaldunak sartzen bazituzten ez zela ezer aurreratzen ikusten zuten. Eta noski, ez zen hura Diputazioaren proiektua. Estatuko zerrendetatik euskaldunak eta bertakoak aukeratzeko proposamena egin zen, baina ez zen posible izan. Ondorioz, Hezkuntza Batzordearen irizpidea izan zen arlo horretan esku-hartzeko aukerarik ez zegoen bitartean eraikuntza berririk ez egitea. Proiektu autonomoa egin nahi zuten beren kulturari, euskarari, herriko ohiturei eta

erlijioari eusteko, baina hor bukatu zen autonmiaren ideia.

Bukatzeko, auzo eskolen proiektuari buruz esan behar da ez zela berriro horrelako proiekturik martxan jarri. Eskola txikiei edo mendi eskolei dagokienez, 1948an oraindik 80 bat eskola txiki zeuden Diputazioaren laguntzarekin. Baina laguntza oso eskasa izanik, poliki-poliki desagertzen joan ziren. 1970ean eskola horiek erabat desagertu ziren.

Hizkuntza
eta kultura
propioak
ditugu, eta
horrek bertako
irakaskuntza
baldintzatzen
du

Ekarpena

Irakurketa eta idazketaren inguruko hausnarketak (eta II)



Irakurketa eta idazketa aztergai izan ziren Ikastolen Elkarteak otsailean antolatutako VIII. Jardunaldietan. Hiru egunetan zehar Euskal Herri osoko 700 pertsona hurbildu ziren hitzaldietara. Hitzaldi teorikoak zein esperientzia praktikoak entzun eta ezagutzeko aukera eman zuten jardunaldiek. Parte hartu zuten hiru hizlarirekin hizketalditxo bat egin genuen irakurketa eta idazketaren inguruan bakoitzak dituen ideiak ezagutzeko asmotan. Horietako baten ekarpena aurreko zenbakian argitaratu genuen bezala, oraingoan beste biera bildu dugu.

Eduard Vallés: *“Eredu anitz daude irakurketa-idazketa aztertzeko eta nik proposatzen dudanak ikasketa hori nola garatzen den aztertzen du”*

Eduard Vallés Pedagogian eta Psikologian lizentziatua eta Neuropsikologian espezializatua da. Gironako Unibertsitateko irakasle izateaz gain, neurologo kontsultat bat dauka beste batzuekin batera. Bate-tik, garuneko arazoak dauzkaten eta gaitasunak galtzen dituzten helduekin egiten du lan. Eta bestetik, ikasteko zailtasunak dituzten haurrekin. Ikastetxe askotan egiten du zuzeneko lana. Irakurketa eta idazketaren oinarri neurologikoak eta psikoboluitiboak hitzaldian irakurtzen eta idazten ikasten dugunean gure garunean garatzen ditugun prozesuen berri eman zuen, eta prozesu horiek garuneko zein zatitan lekutzen diren argitzen saiatu zen.

Nola aztertzen da irakurketa eta idazketa prozesua neurologo baten ikuspegitik?

Haurrek idazten eta irakurtzen nola ikasten duten aztertzen da, hots, nola prozesatzen den informazio hori garunean. Eta horren inguruan gauza asko ikusten ari gara. Gaur egun irakurketa-idazketa alderdi askotatik aztertzen da:

psikologia kognitiboa, neurologia, hizkuntzalaritza... Eredu anitz daude irakurketa-idazketa aztertzeko eta nik proposatzen dudanak ikasketa hori nola garatzen den aztertzen du, nola ikasten den irakurtzen eta idazten.

Zer gertatzen da garunean irakurtzen eta idazten ikasten ari garenean?

Denok neurona kopuru zehatz batekin jaiotzen gara. Neurona horiek, besterik gabe, ez dute ezertarako balio beraien artean konektatzen ez badira. Haurrak estimuluak jasotzen ditu besteekin interakzioan dagoenean eta berak eresortzen ditu. Estimulu horiek garunean loturak egiten dituzte. Zenbateta estimulu gehiago jaso, orduan eta lotura gehiago egiten dira.

Horrela, haurra gauzak ikasten ari den heinean, loturak egiten ari da garunean. Bertako zati guztiak aktibatzen dira haurra ekintza hori egiten ari denean, baina zati batzuk beste batzuk baino gehiago aktibatzen dira informazio mota horretarako espezializatuta daudelako. Badakigu belarri gainean, atzealdean eta ezker aldean hitzak eta horiek soinuekiko duten erlazioa grabatzen direla. Txikitari zati horretan grabatzen diren gauzak helduak garenean gogoratzen ditugunak dira.



Informazio horrek guztiak irakurtzen eta idazten nola ikasten den erakuts diezaguke.

Haur guztiak ez dute berdin ikasten irakurtzen eta idazten, batzuek beste batzuek baino zailtasun gehiago dute. Zer azalpen neurologiko du horrek?

Idazten eta irakurtzen kostatzen zaien haurrak bi motatakoak izan ohi dira orokorrean. Batzuek besteek egiten duten gauza bera egiten dute, baina mantsoago, denbora gehiago behar dute. Haatik, ikasten dutenean, beste en mailan gelditzen dira. Beste batzuek, ordea, zailtasunak dituzte prozesu hori burutzeko. Ez dute garuneko lesiorik, baina irakurtzen eta idazten ikasteko erantzukizun handiagoa duten zonaldeek desberdin funtzionatzen diete. Ondorioz, hitzak soinu bihurtzeko prozesua mantsoago burutzen dute, ez dute besteek adinako arintasunik lortzen. Zailtasunik ez duen pertsona batek artikulu bat bi minutuan irakurtzen badu, hauek lau minutu behar izaten dituzte. Zailtasun hori beti mantentzen da; lizentziaturak ikasi dituzten helduak ezagutzen ditut, baina ez dute irakurtzeko arintasunik lortu.

Beraz, arazoa prozesamenduaren abiaduran dago. Ezin dugu esan garuneko lesio bat dagoenik, garuneko zonalde batzuek desberdin funtzionatzen dutela baizik.

Askotan patologia eta disfuntzioaz hitz egiten dugu horrelako egoeren aurrean. Noiz gaude patologia eta disfuntzio kasu baten aurrean?

Orain arte esandakoari jarraituz, idazten eta irakurtzen ikasteko zailtasunak dituzten haurrak daude. Zenbait gaitasun besteek baino baxuagoak dituzte eta, normala den bezala, gehiago kostatzen zaie. Haur horiek adimenkoefizientea normala baino "baxuagoa" edukiko lukete.

Beste haur batzuek adimen normala daukate, gutxi gorabehera gaitasun kognitibo orokorra normala dute. Baina ikasketa instrumentalak ikasteko

zailtasunak eduki ditzakete, hots, aritmetika, idazten eta irakurtzen ikasteko. Ikasketa horiei instrumentalak deitzen zaie beste gauzak ikasteko balio dutelako. Beraz, haur batek gaitasun normala eduki dezake orokorrean, baina aritmetikarako ez. Ondorioz, arazo espezifikokoak suerta daitezke; irakurtzeko arazoa, idazteko arazoa edo aritmetikarako arazoa. Kasu horietan zenbait kontzeptu erabiltzen dira: garapen dislexia, garapen disgrafia...

Kasu biak ez dira berdinak, eta ez nahastea komeni da, haurrei etiketarik ez jartzearren.

Orduan, nola ziurta daiteke patologia bat duen ala ez? Zer pauso jarraitu behar dira?

Lehenengo diagnostikoa egin behar da. Hori haurrak 7-8 urte dituenegaitzen da, ez lehenago. Adin horretarako idazketa-irakurketarekin kontaktua izan dute, eta ordurako badakigu zailtasunik baduten ala ez. Irakurtzen eta idazten bi urte daramatzen arte ez da ezer diagnostikatu behar. Denbora horretan laguntza espezializatua jaso arren zailtasunekin jarraitzen duela eta gehiago ezin duela aurreratu ikusten denean, orduan diagnostika dezakegu dislexia edo dena delako arazoa.

Nola egin dezakegu diagnostikoa eskolan?

Lehenik, haur batek zailtasunak eduki ditzakeela ikusten bada, psikologo edo psikopedagogo batekin kontsultatu behar da. Psikologoak aztertu eta bere aholku eta gomendioak emango ditu. Oso garrantzitsua da psikologoa irakaslearekin eta gurasoekin koordinatuta egotea. Laguntza espezializatua eman behar zaio, bai gelan eta bai gelatik at. Ikaskideak ere lagun dezakete eta gurasoek ere bai. Adibidez, etxean haurrarekin batera irakur dezakete, bakkarik irakurtzen utzi gabe.

Inplikaturako guztiak elkarrekin lan egiten badute, gauza asko atera daitezke. Ez da konpetentzia, kolaborazioa baizik.



Neurologian erabiltzen diren tresnak irakaslearentzat tresna arruntak izatera iritsiko al dira?

Neurologoek erabiltzen duten teknikak oinarri teoriko bat edukitzeko balio du, baina ez interbentziorako. Erresonantziak eta froga gehiago egin diezazkiokegu haurrari, baina praktikari begira jarrita ez daukagu horren beharrik. Badakigu burmuinean zerbait gertatu dela, baina garrantzitsuena ez da zer zehaztea, baizik eta haur hori bere garapenean nola doan ikustea. Goazen zein zailtasun dituen ikustera, zer egiten duen zailtasun egoeretan eta menperatzen dituen egoeretan... Horrela, "ondo" eta "gaizki" egiten duenaren arabera planifikatuko dugu interbentzio plana.



Ana Teberosky: “Eskola giza produkzio kulturalari eta horrek dituen helburu kulturei esker sortutako erakundea da”

Bartzelonako Unibertsitateko irakaslea da eta momentu hauetan Hezkuntza eta Garapenaren Psikologiako Departamentuko zuzendaria da. 20 urtetik gora daramatza Katalunian lanean, eta batik bat garapen eta hezkuntzaren inguruko gaiekin aritu da, zehazki irakurketa eta idazketan. Horrez guztiaz gain, irakasleriaren prestakuntza da interesatzen zaien zereginetako bat.

Irakurketa eta idazketa konstruktibistaz hitz egin dugu. Zein dira, zure iritziz, konstruktibismoaren ezaugarri garrantzitsuenak?

Ikuspegi konstruktibistak ikaskuntza prozesua etengabe eraikitzen dagoen prozesu bezala ulertzen du; hau da, ez dela kanpo ideien bidez ezarria, ezta bat-bateko garapen eta garapen autonomoaren bidez ere, elkarrekintza testuinguru batean baizik. Testuinguru horretan helduak aktiboak dira, eta era berean, ikaslea ere intelektualki edo kognitiboki aktiboa da.

Kognitiboki aktiboa dela aipatzen dudanean zera esan nahi dut: haurrak jasotzen duen informazioa eta ezagutza guztia aurretiko hipotesien, ideien eta barneratze prozesu baten bidez jasotzen duela, eta aurretiko hipotesi horiek ezagutza berrien arabera aldatuz joaten direla. Horregatik diogu interaktiboa dela.

Bestalde, “txoko kulturala” deritzonari buruz ere mintzatu zara. Azalduko al zeniguke zer ulertzen duzun zuk “txoko kulturalaz” eta zenbate-

rainoko garrantzia duen zure ustean?

“Txoko kulturala” kontzeptua “txoko ekologikoa” deritzonetik bereizteko erabiltzen dut. “Txoko ekologikoa” hitza ingurune kulturala zaintzeko erabiltzen den bezala, “txoko kulturala” kontzeptuak ingurune kulturala ere zaindu beharrekota dela adierazi nahi du, ingurune kulturalak naturalak bezainbateko eragina baitu. “Txoko kulturala” hori giza produkzioen bidez sortzen da (bai historikoak, bai kulturalak): ahozko hizkuntzatik idatzizko hizkuntzara jausia, teknologia guztiak, kulturaren inguruan egindako produkzio guztiak...

“Txoko kulturalak” bereizgarri bezala duen ezaugarria, alde batetik, tresnen bitartez egina dagoela da, eta bestetik, giza ekintzez eta giza intenzionalitatez ere sortzen dela. Ekintza eta intenzioz egina dagoela diodanean zera esan nahi dut; ingurune kultural batean elkarbizitzeko besteekin elkarrekintza mantendu behar dela, hots, praktika batzuk partekatu behar direla aurreko tresna horiek zentzua izan dezaten.

Hitzaldian gurasoek izan behar duten elkarrekintzaz ere jardun zara. Baina irakasleriari dagokionez, nola-koa izan behar du elkarrekintza horrek?

Berdina. Eskolara begiraturaz gero, hizkuntza intenzionalitatea aurkituko dugu, hau da, helburu batzuetara zuzendua egongo da. Bestela, ez litzateke hezkuntzarik egongo, eta gainera, helburu horiek eskolak edo komunitateak berak planteatutako helburu batzuk izango dituzte. Horietako bat haurrak xede zehatz batzuetara zuzentzea izango da. Beraz, hori guztia ingurune kulturalari dagokio, eskola berez ez da ingurune kulturala. Kulturarik ez balego, ez litzateke eskolarik ere egongo, idaz-

keta existituko ez balitz ez litzateke eskolarik egongo... Eskola giza produkzio kulturalari eta horrek dituen helburu kulturei esker sortutako erakundea da.

Idazketa eta irakurketaz ari gara behin eta berriz, eta eskolan ere hori lantzen da batik bat, ahozko hizkuntza pixka bat alboratuz. Nola ikusten duzu hori?

Lehenik eta behin, eskola guztietan egoera hori ez dela gertatzen aipatu behar da. Eskola batzuek ez dute nahikoa lantzen irakurketa eta idazketa, baina beste eskola batzuetan irakasleek proposamenen aukeraketak egiten dituztenez, lantzen dira.

Konstruktibismoaren ikuspegitik, ahozko eta idatzizko hizkuntzak elkartuta doaz, zeren idatzizko hizkuntza, hitzak dioen bezala, hizkuntza da. Horregatik, nire ustez, biak batera landu behar dira. Egia da eskolak idatzizko hizkuntza lantzen duela batik bat, baina hori eskolaren berezotasun bat delako gertatzen da. Gehiago ebaluatzen da, eta era berean, hizkuntzaren arautegia ere ahozkoa baino gehiago idatzikoa da. Horren guztiaren aurrean, irakasleak idatzizko hizkuntza lantzeko erraztasun handiagoa dauka. Baina horrek ez du esan nahi ahozko hizkuntza ere landu behar ez denik. Alderantziz, ahozko hizkuntza idatzizkoa bezainbat landu behar da.

Oratoriaz ere aritu naiz. Oratoriak diskurtso zabala, koherentea eta laguntzarik gabe sortzeko gaitasuna adierazten du, eta hori da eskolak duen helburu garrantzitsuenetariko bat, oraindik helburu bezala bereganatu ez badu ere. Gainera, xede horretara heltzeko denbora eta espazioa eskaini beharko zaizkio.

Hala ere, egunikustendazenbait ka-

sutan ahozko hizkuntza idatzizkoa baino gutxiago hartu dela kontuan. Esaterako, egun ahozko hizkuntza lantzeko zenbait proiektu lantzen hasi dira.

Beno, baieztapen horrek akats bat badu. Zeren gauza ez da ahozkoa ez dela aintzat hartu, baizik eta berari buruzko hausnarketa nahikorik ez dela egin. Idatzizko hizkuntza lantzen denean ahozkoa ere lantzen da, eta alderantziz ere bai. Landutako irakurketa bat jorratzen duzueanean, idatzita dagoen testu bat ahoz komentatzen ari zara. Edota azalpen batzuk ematean, azalpen horiek ere idatzita dagoen prozesu batean ahozko azalpenak dira. Orokorrean, testu idatzi baten ahozko erreproduzioa egiten ari gara.

Ahozko eta idatzizko hizkuntzez hitz egiten dudanean ez ditut azaltzeko moduagatik soilik bereizten (bata hitzez adierazten delako eta bestea idatziz gauzatzen delako), baita eraketa moduagatik ere eta biak jokoan jartzeko erabiltzen diren mekanismo linguistiko eta kognitiboengatik ere. Produktzio moduari dagokionean, ahozkoa pertsona biren edo gehiagoren arteko elkarriketaren bidez gauzatzen da; idatzizkoa, berriz, pertsona bakar batek egiten duen diskurtso zientifikoaren bidez. Orduan, biak konparatuz gero, produktio modua eta hizkuntza mota bietan ezberdinak direla ikusten dugu, baina bakoitzak bere aldatetak egin ditzake. Esaterako, idatzitako testu bat ahoz komentatzen edota irakurtzen ari tuko bagina bezala hitz egin daiteke. Azken batean, ahozkoa-idatzizkoa eta idatzizkoa-ahozkoaren arteko erlazioan interakzio garrantzitsuak daude. Beraz, gakoa ez dago produktio moduan, baizik eta eraketa moduan. Hizkuntza horiek aurrera eramateak prozesu guztiz ezberdinak eskatzen ditu. Normalki, idatzizkoa ongi landu ohi duenak ahozkoa ere egoki landu ohi du, eta alderantziz.

Bestalde, kontuan hartu behar da idatzizko hizkuntzak iraun egiten duela, zuzenketak egitea ahalbidetzen duela eta idatzitako horretara itzul gaitzkeela. Beraz, landuta plazaratzen



den zerbait da. Ahozkoarekin, berriz, ez da hori gertatzen; esaten dena momentu horretan geratzen da. Horregatik, produktio moduak guztiz ezberdinak dira batean zein bestean.

Aipatu dugun guztia nahiko gai konplexua da eta jendea lelo batzuetara ohitua dagoenez ez du behar den bezala ikusten egoera.

Amaitzeko, hitzaldian egin duzun aipu bat ekarri nahi dugu gogora: "Es-kolan haur bakoitzeko 200 liburu eduki beharko lirateke". Azalduko al zeniguke proposamen hori?

Bai, haurrek normalki eskolan bertako liburutegi bat izaten dute. Interesgarria da haurrak liburuak irakurri hezte.

200 liburu aipatzen dudanean, or-

dea, ez dut jendea zifra horrekin gera dadin nahi, baizik eta horren inguruan hausnartzea. Hau da, haurrak irakurri egin behar du, eta hori sustatu egin behar da. Horretarako, liburutegi publikoak, Interneta, eskola liburutegia eta abar jarri behar dira haien eskuetan.

Ikastolen Elkarteak anto- latutako VIII. jar- dunaldi pedago- gikoetan parte hartutako hizla- riek irakurketa- idazketaren hainbat alderdi ikusarazi dizkigute





hik hasi udako topaketak

Aurtengo topaketa pedagogikoetan 23 ikastaro izango dira aukeran. Berabei buruzko informazioa liburuak batean argitaratu badugu ere, zenbait ikastarotako hitzaldietan azalduko denaren informazio osatuagoa gehitzen dizuegu orriotan.

1. Kohlberg

Garapen eta hezkuntza etikoa: Kohlberg-en ekarpena

Ikastaroaren koordinatzailea: Lontxo Oihartzabal.

- Balio moralak: balioetan hezteko orientabideak?

Balioetan heztea ez dela lan samurra irakasleok ongi asko dakigun zerbait da. Baina ez da gaurko kontua. Gizakia gizaki denetik istilu horietan sartua dagoela esan genezake. Hala eta guztiz ere, gaurko garaiak bizitzea suertatu zaigunoi, auzia areagotu egin dela iruditzen zaigu. Hau da, aurreko garaiekin konparatuz, zerbait garrantzitsua jokoan dagoen intuizioa dugu.

Horrela izan ez izan, hor ari dira giza jakintza eremu guztiak gaia aztertzen: filosofia, soziologia, antropologia, psikologia, pedagogia eta abar. Eta saio horietan aritu izan den egile garrantzitsuenetariko bat Kohlberg dugu.

Kohlbergek soluzio osoa aurkitu zuenik ezin dezakegu esan., baina nolabaiteko ikuspegi erabilgarria utzi digula onar dezakegu. Beraz, saia gaitzen ekarri hori ezagutzen eta ulertzen. Hitzaldiak eskema hau jarraituko du:

1. Sarrera gisa zenbait bereizketa egiten:

- Balioen artean bereizten.



- Moraltasunaren eta etikaren artean bereizten.

2. Hezkuntza moral. Oinarrizko ereduak:

- Ikuspegi "erromantikoa".
- Ikuspegi "teknologikoa" edo "balioen transmisioarena".
- Ikuspegi "progresiboa".

* **Fausti Azazeta.** .EHUko irakaslea

- Kohlbergen ikuspegiaren deskribapena eta oinarritzapen psikologikoa.

* **Contxi Medrano.** EHUko irakaslea.

- Kohlbergen proposamen psiko-pedagogikoaren deskribapena: just community.

* **Lontxo Oihartzabal.** EHUko irakaslea.

- Kohlbergen proposamen psiko-pedagogikoaren aplikapen praktikoaren hainbat eredu.

Garapen moral neurtzeko tresna bat. Kohlbergek finkatu zituen estadio eta etapen ezaugarriak oinarria harturik, ikasleen garapen moralaren neur-

keta ahalbidetzen duen tresna bat lantzea nahi izan da.

Saiakera honetan izan diren zailtasun eta lorpenak aipatuko dira, eta baita tresnaren ezaugarriak eta ondoriak ere.

* **Oskar Viguera** (Lasarteko PAT) eta **Gema del Rio** (Donostiako IBT).

6. Informatika proposamen kurrikular baten aplikazioa (DBHko 1. zikloan)

- Proposamen kurrikularren aurkezpena.

- Ikasgariaren justifikazioa.
- Euskarriaren ezaugarriak.
- CDaren egitura. Osagaiak eta kokapenak.
- Hirugarren zehaztapen mailako jardueren datu-basearen aurkezpena
- Jarduera-fitxak erabiltzeko moduak.

- Netmeeting.

- Gelan egiteko aurkezpenak.
- Komunikazio aplikazioak.
- Talde nagusi mailako ekintzak.
- Konferentzien antolaketa.

- **Sare antolaketak.**
- Ikastetxearen sarea antolatzeko irizpideak.

- Informatika gelaren egituraketa.

- **Hardwarea eta Interfazea.**

- Interfaze grafikoaren ezaugarriak.

- Interfazearen erabilera eta kontrola.

- **Oinarrizko testugintza.**

- Oinarrizko idazketa eta edizioa.

- Testu formatuak.

- **Telematika. Internet.**

- Webguneak eta nabigazioa.

- Bilatzaileak eta atariak.

- Informazioa norberegantzea.

- E-posta.

- **Grafikogintza**

- *Fitzategi grafikoak:*

- Motak.

- Ezaugarriak.

- Editore motak.

- Grafiko bektorialak:

- Grafikoen sorkuntza.

- Grafikoen moldaketa.

- *Puntuz puntuko grafikoa:*

- Grafikoen sorkuntza.

- Grafikoen moldaketa.

- **Testu eta grafikoen bateratzea.**

- Grafiko txertaketak.

- Doiketak.

- Eskemak, mapak, taulak...

* **Ikastolen Elkarteko Hezkuntza Informatika taldea.** Talde hau CD-ROM multimedia eta software ugarien sortzailea da eta ikastoletako irakasleentzat antolatu diren prestakuntza ikastaroak zuzendu dituzte. Hauek dira taldekideak:

- **Joxin Azkue Gabilondo,** Oiarzungo Haurtzaro ikastolako irakaslea.

- **Ander Iturburu Yarza,** Ikastolen Elkarteko teknikaria.

- **Arantxa Solaberrieta Etxeberria,** Orioko Herri Ikastolako irakaslea.

- **Maite Sorroa Etxezarreta,** Donostiako Arantzazuko Ama Ikastolako irakaslea.

- **Petro Vera Aguado,** Errenteria-ko Orereta Ikastolako irakaslea.

- **Iñaki Zubizarreta Artetxe,** Donostiako Santo Tomas Lizeoko irakaslea.

* **Josune Gereka Iruetagoiena,** Ikastolen Elkarteko informatika arduraduna.

11. Heziketa fisikoko irakasleen txokoa

- **Eskola kirola baliabide hezitzaile gisa.**

Betidanik entzun dugu haurtzaroran kirola egitea oso positiboa dela hazkunde eta garapenerako, bai fisiko, psikiko eta eremu sozialean sortzen dituen onurak direla medio. Era berean, denok onartuko dugu gure gizartean aspaldian goi mailako kirolak izugarriko oihartzuna duela mass-media eta hedabideetan.

Ikuskizun gisa ulertutako kirolaren gorakada horrek bere eragina izan du eskola kirolan: batetik, ezagunagoa bihurtu da orain arteko anonimotatik irten eta komunikabideetan ere bere lekua irabaziz; bestetik, goi mailako kirolaren ikuspegi eta filosofiaz zipriztindu da, zenbait kasutan bere jatorrizko helburuak ahantziz.

Egun, eskola kirolaren gaia pil-pilean dago, besteak beste eguneroko jardueran hainbat istilu eta gertakari gatazkatsu sortzen direlako. Arazo horiek antolaketari buruzko etengabeko gogoeta gauzatzera eta xedeei zein izaerari buruzko oinarriak birplanteatzera behartzen gaituzte. Eztabaida iturri diren gaien artean (eta ikastaroan landuko ditugunak, beraz), ondorengoak azpimarra ditzakegu: konpetitibitatearen trataera (lehiakortasuna), espezializazio goiztiarra, kirol aniztasuna, helburuei buruzko desadostasunak, saritzeko era, kudeaketaren ardura, monitoreen prestakuntza maila, gurasoen eginkizuna eta eragina, haurren aportazio ekonomikoa, nesken partaidetza, jarduera uztearen arazoak, haurren adinarekiko entrenamenduaren egokitasuna, ezarritako itxaropen eta espektatibak, inguruko presioa, onenen hautapenerako adina eta irizpideak, ikasle-entzuten motibazioa lantzeko aukerak...

Jardunaldian arazo horiek guztiak argitzen eta irtenbidea topatzen saiatuko gara. Izan ere, jardunaldiaren helburua eskola kirolaren eragin hezitzailea hobetzeko asmoz, eztabaida gauzatu ondoren, proposamen eta urrats egokiak aurkeztea baitugu. Asmo hori jomugatzat harturik, ondorengo egitarauaz baliatuko gara ardatz gisa:

- Haurtzaroko kirol jardueraren onurak (eremu fisiko, psikologiko eta sozialean).

- Haurtzaroko kirol jardueraren onurak (eremu fisiko, psikologiko eta sozialean).





- Egungo errealitatean sumatutako arrisku edo jarduera desegokiak (ikuspegi hezitzailetik).

- Hainbat gizatalderen eginkizunak eta jokaeraren ezaugarriak: gurasoak, monitoreak, haurrak.

- Motibazioa: garrantzia, eragina eta hobetzeko estrategiak.

- Eskola kirolaren jarduera bere ootasunean hezitzaileago bihurtzeko proposamenak.

* **Luix Mari Zulaika Isasti.** Gorputz hezkuntzako irakaslea, pedagogo, psikologian doktorea.

- Natur ekintzak.

Hitzaldia natur ekintzetako lau ekintzetan zentratuko da: mendiko txirrindularitza, eskalada, piraguismoa eta orientazioa.

- **Saio teorikoa:** aukeratutako ekintzen justifikazio kurrikularra, natur ekintza hauen unitate didaktikoak zein edukien zatiekin erlazionatzen ditugunaren azalpena. Jarraian, unitate didaktiko bakoitzaren (4) edukien eta helburu didaktikoen azalpena, jardueren denboralizazioa, antolaketa, metodologia eta ebaluazioa. Azalpen horiek diapositibak ikusiz burutuko dira. Saio teorikoarekin bukatzeko gaiekin lotutako oinarritzko bibliografia emango da.

- **Eskaladaren saio praktikoa:** Pio Baroja kiroldegian burutuko da saio hau. Bertan maila eta etapa ezberdinetako adibideak lantzen saiatuko gara.

* **Luis Larrañaga "Pizti".** Tuterako Argia ikastolan Heziketa Fisikoko espezialista. Pilotako eta eskaladako monitore. Mendiko Kirol Teknikoaren titulazioa. Gipuzkoako eta Arabako Goi Mendi eskolako kidea.

- Herri kirolak hezkuntzan.

Goizean zehar egingo dugun Herri kirolen inguruko ikastaro teoriko-praktiko honetan puntu hauek aztertuko ditugu:

- Sarrera:
- Historia.
- Garapena.
- Gaur egungo egoera.

- Arlo teorikoa:

- Herri Kirolen oinarri teoriko batzuk.

- Herri Kirolen egokitzapena hezkuntzan:

- Materiala.
- Arauak.
- Teknika.
- Beste batzuk.

- Arlo praktikoa:

- Unitate didaktikoak.
- Jolasak.

* Onintza Garcia Udabe.

Heziketa Fisikoan espezializatutako Irakasle Eskolako ikaslea.

* **Leire Cano Txokarro.** Heziketa Fisikoan espezializatutako Irakasle eskolako eta Iharduera Fisiko eta Kirolaren Zientzietako ikaslea, Gasteizko Heziketa Fisiko Euskal institutuan (SHEE-IVEF).

Biak entrenatzaileak eta irakasle-entzako Deba Bailarako Euskara eta Kirol Zerbitzuaren eskutik, "HERRI KIROLAK lantzeko fitxa didaktikoak" lanaren egileak dira.

12. Praktika psikomotri- zaren adinkako analisia

- **Bernard Aucouturier praktika psikomotri- zaren:** haurren heltze psikologikoaren prozesua, bere dinamika- ren ulermena.

- Eskolan bat-bateko ekintza eta jolasaren zergatia.

- Espresibitate motri- za (gorputz a- fektiboaren eta pentsamenduaren ba- tasuna haur txikiarengan).

- Destruktio-konstruktio dinami- ka (egin-eragin) heltze psikologiko- ren derrigorrezko prozesu bezala.

- Gorputza eta mugimenduaren garrantzia haur txikiaren heltze psiko- logikoaren prozesuan (plazera eta displazera).

- "Bestea"rekiko harremana: hel- tze psikologikoaren prozesuan eta i- dentitate eraikitze prozesuan duen garrantzia.

* **Alvaro Beñaran Aranzabal.** Pedagogia terapeutikoan lizentzia- tua. Psikomotritatean hezitzaile eta terapeuta. NAHIA Zentroko kidea eta Bergarako UNED-eko Bernard Au- couturier Psikomotritate Eskolako i- rakaslea.

- Zer gertatzen da psikomotritate- gelan 0-3 urteko haurrekin?.

Praktika psikomotri- zaren espe- rientzia bat aurkeztuko dugu eta on- doren adin horietara zuzenduriko es- perientzia honen gaineko iritzi truka-



keta egin nahiko genuke. Horretarako, eduki hauek landuko ditugu:

- Saioen garapena: denboraren, espazioaren eta materialaren antolaketa.

- Psikomotrizistaren esku-hartze zehatzak adin horiekin.

- Praktika psikomotrizak gure hezkuntza jardueran duen eraginaren inguruko hausnarketa.

Metodologia bezala ikus-entzuzko euskarriak (bideoa, diapositibak, gardenkiak...) eta argazkiekin hornitutako panel informatibak erabiliko ditugu. Eta iritzi truketak eta galde-erantzunak izango dira ardatz.

* **Josefa Rufina Martin, M^a Jose Armendariz Leunda, Lourdes Garijo Casado eta Monserrat Meana Martinez.** Gasteizko Udaleko Udal haur eskoletako hezitzaileak. Psikomotrizitate praktika hezitzaileen presatuak..

- Psikomotrizitate praktika hezitzailea (HHko bigarren zikloan, 3-6 urte).

- 3-6 urteko haurra.

- Helburuak: haurren heltze psikologikoaren prozesuan lagundu (komunikazioa, sormena eta pentsamendua garatu).

- Psikomotrizistaren jarrerak.

- Psikomotrizitate gela: lekuak eta materialak.

- Psikomotrizitate saioa: heltze ibilbidea. Egite plazeretik pentsatze plazerera. Uneak eta ekintzak, espresibitate motrizetik espresibitate plaktikarantz.

- Saioa eta haurren behaketa. Erabilitako parametroak.

* **Alvaro Beñaran Aranzabal.** Pedagogia terapeutikoan lizentziatua. Psikomotrizitatean hezitzaile eta terapeuta. NAHIA Zentroko kidea eta Bergarako UNEDeko Bernard Aucouturier Psikomotrizitate Eskolako irakaslea.

21. Gatazken goberna-tzea, ebazpena eta eralda-tzea eskolan.

- Gatazkari eskolan aurre egiteko eredu orokorra.

Eskolan gatazka aztertzen da, bere errealitatea, inplikazioak, aurre egiteko ohiko metodoak eta eskolako kultura aldatzeko beharra.

* **Ramon Alzate.** Psikologian eta gatazken ebazpenean katedraduna. EHUko irakaslea.

- Osagarri kurrikularra: Lehen Hezkuntzako trebetasunen programa.

Materiala aurkeztu eta Lehen Hezkuntzarako diseinatutako gatazken ebazpenerako curriculum bat jarriko da praktikan.



* **Amaia Aguirre eta Lucía Gorbeña.** Gatazken ebazpenean aurre-doktoreko bekadunak.

- Osagarri kurrikularra: Bigarren Hezkuntzarako eta Batxilergorako trebetasunen programa.

Materiala aurkeztu eta Bigarren Hezkuntzarako eta Batxilergorako diseinatutako gatazken ebazpenerako curriculum bat jarriko da praktikan.

* **Amaia Aguirre eta Lucía Gorbeña.**





- Gatazken ebazpeneko programen aplikazioen esperientziak gure hezkuntza ingurunean.

Aplikazio kurrikularra duten hainbat esperientzia eta gure inguruko zentroetako gatazkak bideratzeko programak aurkeztuko dira.

* Instituto Peñaflores, Etxarri Aranzeko Ikastola eta Gernika Gogoratuz.

- Bitartekaritza hezkuntza ingurunean: teknika bat baino gehiago.

Gatazkak konstruktiboki konpontzeko bitartekariak duen garrantzia azalduko da eta horri lotutako alderdien ezarpean ere bai.

* **Maria Carme Boque i Torremorell:** irakaslea, pedagogoa, bitartekaritzan graduatu-ondokoa, "Guía de la Mediación Escolar" en euskaraz.

23. Etorokinak eta kulturantzaren trataera hezkuntzan.

- Kutur aniztasuna kultura gutxitu baten hezkuntzan.

Etorकिनen eskolatzea arazoa dugu Europako estatu-nazioaren arabera eraturako irakaskuntza sistema mordeanoan. Kultura desberdinen trataera ardatz haietan kokatzeko ohiko ikuspegiak eta kontzeptuak kritikatzeko gaitasuna eduki beharra dago. Izan ere, kulturartekotasuna, kulturantzatasuna edo plurikulturalismoa ez dira sinonimoak, hezkuntza praktikak bideratzeko funtsezko erreferentzia desberdinak baizik. Hori guztia argitzen saiatuko gara lehenengo saio honetan.

* **Fito Rodriguez.** EHUko Hezkuntzaren Teoria eta Historian Saileko irakaslea.

- Euskal gizartea eta etorkinak.

Euskal gizartea, gizarte espainiarra ez bezala, inmigratio gizartea da. Elkarbizitza ohitura bat badu, eta beraz, "hegoaldeko" herrialdeetatik datozen inmigrante berriak errekonozitzeko baldintza hobekitu. Ikastaro honetan talde anitz horien ezaugarriak eta euskal gizartearen dauden jarraitza ezagutzera eman nahi dira.

* **Pello Albite.** EHUko Soziologia Saileko irakaslea.

- Aniztasuna: berdintasunaren alde lanean.

Hezkuntza interkulturalaren helburua ez da aniztasunaren errepesta lortzea soilik, baizik eta eskubide berdintasuna lortzea. Izan ere, sarridan aniztasunaz, tolerantziak eta abar hitz egiten dugu, baina eskubide ezberdinak ditugula ahaztu egiten dugu. Horregatik, lehenengo eskubideen berdintasuna lortu behar dugu, pertsona guztiok eskubide berdinak izan behar ditugu. Berdintasunean antolatutako gizartea eratu behar dugu, horri eman behar diogu lehentasuna. Aniztasuna eta eskubide berdintasuna, biak landu behar ditugu, lehenengoarekin bakarrik hankamotz gelditzen baikara.

* **Agustín Unzurrunzaga.** Gipuzkoako SOS Arrazakeriako kidea.

- Hezkuntza eleanitza eta kulturantzaren Bruselan.

Ikastaro honetan bi hitzaldi eta beste bi tailer izango dira.

1. hitzaldia: Brusela, hiriburuko kulturantzaren.

Bruselan bi komunitate autoktono daude: gehiengo frankofonoa eta nederlandera hitz egiten duen gutxiengo.

goa. Gainera, biztanleriaren %30 aloktonoa da: hainbat belaundaldirako etorkinak, errefuxiatu politikoak eta ekonomikoak eta eurokratak. Talde horien, beraien elkarbizitzaren eta arazoan ikuspegi orokorra emango dugu.

2. hitzaldia: Jendarte kulturantzaren erakuntzan irakaskuntzak dituen zeregin eta aukerak.

Azken 20 urteotan Foyer integratio zentroak hainbat estrategia eraman ditu aurrera aloktonoak indartzeko eta beraien integratioa bultzatzeko. Ekimen nagusia irakaskuntza eleanitzaren eredu espezifiko bat garatzea izan da. Horrez gain, hainbat elementuri arreta berezia jartzen zaie: gurasoen papera, eskola/aisialdia harremana eta gaitasun sozialen garapena.

1. tailerra: Haurrak irekiak eta toleranteak izateko hezi.

Proiektu konkretu bat aurkeztuko da. Horren bidez haurrak kontzeptu hauetara hurbiltzen dira: aurreiritziak, gertaera eta iritzien arteko ezberdintasuna, errefuxiatuak, turkoburuak...

2. tailerra: Irakaskuntza eleanitzaren kontzeptuan sakonduz.

Institutuko ikuspegitik bigarren hitzaldian azalduko sakonduko da. Orduetarako, klaseetako eduki konkretuak, antolaketa, gurasoekiko elkarlana eta eskolako zein eskolaz kanpoko aktibitateak aztertuko dira.

* **Marisa Mendoza eta Nuria Borrás.** Bruselako Foyer erakundearen kideak.

OHARRA: EAEko ikastetxe publikoetako eta ikastetxe kontzertatuetoako irakasleak matrikulako dirua berreskuratzeko aukera duzue Hezkuntza Sailak ikastaroak egiteko ematen duen diru laguntzaren bitartez. Horren deialdia EAEko aldirikari ofizialean argitaratuko da.

II. Udako
Topaketa
Pedagogikoe-
tako
matrikulazio
epea irekia
dago

Aldizkari honetan hainbat

topaketei buruzko

informazio gehiago

topatuko duzue




Berriak maiatza

Argitalpenak




Besteen odola
Simone de Beauvoir
Literatura Unibertsala
Ibaizabal

Liburu honetan garaiko errealitate politikoa garrantzi handikoa dela bistakoa da. Egileak gizabanakoen bizitzan kokatuta eta haien bihotzetan eragina duen heinean aurkezten digu errealitate hori. Bertan, erresistentzia eta okupazioaren goibeherak kontatzen dira. Bestalde, berotasunez jasoa izan da eta kritikaren alde tik ere arrakasta handia izan du •



Josu azalaren abenturak
Iñaki Zubeldia
Gaztaro bildumako liburu hone-
tako pertsonaia nagusia Josu Azala
dugu. Mutil harrigarri bat da, naturak
noizean behin sortzen duen salbues-
pen horietakoa. Astakilo samarra da
baina guztien gainetik bihotz one-
koa eta jatorra, lagunak laguna. Ha-
ren ondoan abentura eguneroko o-
gia da. Abentura hauetan Pello, Kol-
do eta Imanol bere lagunak lagun-
duko diote, nahigabe ere abentura
txundigarriak biziko dituztelarik •



Zirku izugarria
Karlos Santiesteban
Ibaizabal

Udako oporrak amaituta neska-
mutilek ikasturte berriari ekin diote
eta ikastolan hainbat aldaketa izan
dituzte. Guztietatik handiena irakas-
learena izan da, andereñoaren orde-
z oraingoan maisua tokatu zaielako, I-
ñaki Malaxetxebarria. Berehala kon-
turatuko dira maisu berria ez dela e-
saten duten bezalakoa biharamune-
an nora eta zirkura joango direla e-
san die: Zirku Izugarria! •



**Marimuki, ziber-mamua
eta zopa**
Antton Dueso
Ibaizabal

Matxinsalto bildumako liburu-
ka honetan Marimukiren abenturak
ditugu kontagai. Istorio hauetan ze-
har Marimukiri ziber-mamu batek la-
gunduko dio, bien artean pasarte a-
tseginak eskainiko dizkigutelarik. Li-
buruan bi ipuin aurki ditzazkegu;
“Marimukiren ziber-mamua” eta
“Marimukik ez du zoparik nahi”, A-
maieran oroimena lantzeko zenbait
ariketa proposatzen dira •



Nire arreba Aixa
Meri Torras
Kuku Saila
Elkarlanean

Liburu honetako protagonistak
bere arreba Aixaren eta bere kontuak
dakarzkigu. Beltzarana da bere ar-
reba berria eta berarekin batera bizita-
ko hainbat gauza kontatzen dizkigu:
batzuk onak eta beste batzuk txarrak,
bizitza bera bezala. Oso kontaketa
samurra eta goxoa darabil egileak eta
maitagarria suertatzen da •



Tantak
EHUko Hezkuntza Aldizkaria
24. zenbakia
Martxo 2001

Ale honetan EHUko zenbait iras-
kaslek hainbat gai jorratzen dituzte.
Alde batetik, ikastetxeen kanpo eta
kalitate ebaluazioak, hezitzaileentza-
ko ikerkuntza metodologia bat ere es-
kaintzen delarik. Bestalde, testuen u-
lertmenterako faktoreak zein diren eta
nortasunaren motibaziozko osagaien
azterketa bat ere agertzen dira. Azke-
nik, Gipuzkoako Irakasle Eskolako i-
rakasle baten eskutik errealitatea iru-
dikatzeko mailak aurkituko ditugu •

UEUK bere bi egoitza berriak inauguratu ditu Bilbon eta Eibarren

Udako Euskal Unibertsitateak bi egoitza berri inauguratu ditu: bata Eibar-ko egoitza nagusia, eta bestea Bilboko egoitza soziala.

Lehenengo izango da aurrerantzean UEUren Ikastetxe Nagusia. Eibarko Markeskua jauretxean kokaturik dago eta bertatik bideratuko da UEUren jardura akademiko guztia, hots, udako ikastaroak, jardunaldiak, topaketak, prestakuntza iraunkorreko ikastaroak eta abar. Horrekin batera Markeskoan burutu ahal izango dira hainbat eta hainbat ikastaro, bilera, jardunaldi, mintegi eta abar.

Bilboko egoitza, bestalde, egoitza sozial bezala izendatu dute. Erribera kaleko 14. zenbakian kokaturik dago. Egoitza honetatik elkartearen kudeaketa nagusia egingo da eta argitalpen-



Maiatzaren 3an inauguratu zen ofizialki UEUren Eibarko Ikastxe Nagusia Markeskua jauretxean

gintza eta Inguma proiektua zuzenduko dira.

Egoitza bi horiekin UEUK bere jarduerari finkotasuna eta ziurtasuna emango dio. 1976an sortuz en elkarte eta orduz geroztik bere jarduna hedatuz joan da. Azken urteotan udako ikasta-

roez gain, urtean zehar hainbat jardunaldi eta topaketa antolatzen ditu, batez beste hamar liburu argitaratzen ditu, prestakuntza iraunkorreko ikastaroak antolatzen ditu eta beste hainbat ekimen ere aurrera eramaten ditu.

JUUL 2001 hauteskundeetako emaitzak oso onak izan dira

Haur eta Gazte Literaturaren Nazioarteko Eguna ospatzeko, Euskal Herriko ikastolek Hans Christian Andersen idazle daniarraren jaiotzaren 196. urtemugaren inguruan, hauteskundeak prestatu dituzte. Aurten, lehen aldiz, Euskal Herri osoko ikastolek parte hartu dute, eta guztira 8.399 partaide izan dira. Emaitzak hauek izan dira kategoria bakoitzean:

A Kategorian (Haur Hezkuntzan):

Partaideak: 1.357

Kategoria honetan, euskal produktzion ez dago. Idazle euskaldunek gutxi idazten dute Haur Hezkuntzako haurrentako. Ipuin gehienak idazle kanpotarrek idatziak direnez, aukeraketan, halaber, kanpotarrek suertatzen dira aukeratuenak.

Alcántara argitaletxeak arrakasta

handia lortu du bere Tonto sortarekin. Egiaztatu ahal izan dugu Haur Hezkuntzako liburutegiak berrituak daudela (azkeneko bi urteetan argitaratutako liburu aunitz agertzen baitira).

B Kategorian (Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailan):

Partaideak: 2.160

Joxan Ormazabal suertatu da bozkatuena. Beste idazle euskaldunen artean: Juan Kruz Igerabide, Pello Añorga eta Angel Lertxundi.

C Kategorian (Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailan):

Partaideak: 2.650

Adostasuna egon da hautesleen artean: Harry Potter gurean ere arrakastatsua bilakatu da. Diferentzia handiz izan da aukeratuena, 230 botu. An-

jel Lertxundik ere botu asko jaso ditu, 94. Idazle euskaldun bozkatuenak: Angel Lertxundi, Bernardo Atxaga eta Aingeru Epaltza.

D Kategorian (DBHn):

Partaideak: 2.229

Berrito ere lehena Harry Potter, nahiz eta C kategorian baino adostasun gutxiagoarekin; 178 boturekin. Idazle euskaldun bozkatuenak: Jon Arretxe, Gotzon Garate, Igor Elortza eta Unai Iturriaga. Jon Arretxeren bi liburuak lehen hamar aukeratuen artean agertzen dira.

E Kategorian (Ilustrazioa):

Partaideak: 2.284

Lehen urtea da kategori honendako. Lehen sei bozkatuenak euskaldunak izan dira. Euskal Herriko ilustrazio arloa hagitz sendoa da.

Euskal literatura idatzia

CD-ROMa kaleratu du Ikastolen Elkarteak

Ikastolen Elkarteak kaleratu berri du Euskal literatura idatzia izeneko CD-ROM multimedia. Euskal literatura idatziari buruzko entziklopedia berri bat da, multimedia euskarrian izanik aukera anitz eskaintzen dituen. Informazio iturri izateaz gain, euskal literatura idatzira hurbiltzeko modu berri bat ematen du. Printzipioz DBHko ikasleentzat oinarriko erreferentzia eskola-materiala bada ere, eskolatik kanpo ere edonork erabiltzeko modukoa da. Gure kultur tradizioa ezagutzeko aukera ematen duen lan oparoa da; gurean idatzitakoak ezagutu eta ezagutzuz gozatzeko.

Lan berri hau Ikastolen Elkartearen ikasmaterialgintza proiektuaren beste fruitu bat da. DBHrako (Ostadar proiektua) sortzen ari den testu materialaren osagarri gisa eraiki da, eta jarraipena izango du, aurrerago "Ahozko euskal literatura" izeneko bigarren CD-ROMa kaletaratzea aurreikusia baitago.

"Euskal literatura idatzia" CD-ROMean euskal literatura idatziaren inguruko hainbat eta hainbat informazio biltzen da: zeharbide kronologikoa eta tematikoa, mugimendu literarioak, autoreak eta obrak... Horrez gain, garai historiko desberdinen ezaugarri kultural, historiko eta ekonomikoek literatur idazlanetan izan duten eragina aztertzeko aukera ere ematen du. Hori guztia zazpi ataletan antolatutako dago: historia, autoreak, testuak, hamaika gai, baliabideak, generoak eta mugimenduak.

Historia atalak XVItik XX.ko gerra zibilaren ondorena arte garai bakoitzaren ezaugarri politikoak, ekonomikoak, garaiko gizartea eta abar ezagutzeko aukera ematen du. Mende bakoitzean euskarak eta euskal litera-

turak garai horretan izan dituen berezitasunak ere aipatzen dira.

Autoreak atalean poesia landu duten 50 autoreren eta prosa landu duten beste 50en zerrenda agertzen da, bakoitzaren biografia irakur daiteke elarik. Zerrenda horiek egiteko Koldo Izagirrek eta Xabier Mendiguren Elizegig eginiko *Euskal Literaturaren Antologian* oinarritu dira. Biografia horietan aipatzen diren liburuen izenburuen bitartez obra horietako pasarteak ere irakur daitezke.

Lan horietara *Testuak* ataletik ere sar daiteke. Guztira 200 obra aukeraturen zatiak bildu dira. Horietatik 24tan autoreak beren obrari buruz hitz egiten edo erreztatzen agertzen dira. Abesti bilakatu diren 14 obra ere entzun daitezke.

Hamaika gai euskal literaturan atalak ere testuetara sartzeko bide ematen du, baina gai jakin bat abiapuntutzat harturik. Aukeratutako gaia euskal literatura idatzian nola jorratua izan den jakiteko aukera eskaintzen du. Gaiak hamaika dira: maitasuna, exilioa, emakumea, euskara, paisaia, itsasoa, nekazaritza, artzaintza, dan-





tzak, zuhaitzak eta zezenketak. Atal hau egin duen Lurdes Otaegik literatura lantzeko beste modu bat bezala ikusten du aukera hau. *“Zenbait gairen inguruan autore batek baino gehiagok idatzi du eta tratamendu ezberdina emanez. Testu horietara hurbiltzeko eta tratamendu horiek nolakoak diren ikusteko aukera ematen du atal honek”* dio Otaegik. *“Adibidez, zuhaitzen gaia hautatzen badugu, elementu sinboliko bezala literaturan asko erabili izan dela ohar-tuko gara. Bertako zuhaitzekin identifikazio abertzaleak egin izan dira, baratzako zuhaitzak maitasunarekin identifikatu izan dira eta zuhaitz arraroek edo arrotzek giro kezagarria edo misterioitsua aurreikusi izan dute”*.

Baliabideak atalari dagokionez, literatur lanetan erabiltzen diren estilo baliabideak deskribatzen dira. Baliabide fonikoak, semantikoak eta sintaktikoak bereizten dira, eta deskribatzearekin batera, euskal literaturako adibideak ematen dira.

Generoak izeneko atalean drama-tika, lirika, prosa ez narratiboa edo di-

daktikoa eta prosa nar-ratiboa sailkatu dira.

Mugimenduak atalean mendebaldeko lite-raturan nabari diren lite-ratur mugimendu nagusienei buruzko azalpe-nak jaso dira, hala nola, humanismoa, klasizis-moa, erromantizismoa, errealismoa...

Atal bakoitzak bere edukia izateaz gain, elkarrekin loturik daude eta ba-tetik bestera pasa daiteke. Horrez gain, informazio guztia erraz erabili eta aurkitu ahal izateko *mapa kontzeptual* bat dago. Bertan egile nagusiak aurki daitezke bi ardatz nagusiren ar-bera sailkatuz: kronologia eta gene-ro literarioak. Ataletatik audiora edo bideoa joateko aukera ere badago, eta autore guztien zerrenda ikusteko ere bai. Zerrenda horretan mendez mendeko literatur egileen datu basea antolatuta da. Autore bakoitzaren bio-grafiaren oinarritzko datuak, obren ze-rrenda eta argazkia txertatu dira. Ho-rretarako Joan Mari Torrealdeai *Eus-kal idazleak*, gaureta *Euskal Kultura gaur* liburueterako sorturiko infor-mazioak baliatu dira, eta ordutik ho-nakoak ere egile beraren datuez baliatuz gaurkotu dira. XX. mendeko ema-kume idazleen kasuan, Linda Whitek “Escritoras vascas del siglo XX” artiku-luan aipatzen dituen idazleen datuak bildu dira.

Lan honen egile ahalik ere lanik e-

rabilgarriena eta osatuena egiteko a-halegina burutu dute. Lehen aipatu dugun bezala, Ostadar proiektuaren barruan kokaturiko lana da, eta ildo horretatik, zenbait helburu lortzeko pentsatua eta prestatua izan dena, ha-la nola:

- Literatur testuak eta asmo literarioa duten testu idatziak (poesia eta prosa) interpretatzea, jarrera pertsonal eta kritiko sortzaileetatik abiatuz.

- Literatur lanen izaera artistikoa gauzatu duten elementuak identifika-tzea, euskal literatura tradizionalaren eta modernoaren ereduak behatuz eta konparatuz.

- Literatur testuekiko erlazioen bi-dez zentzu estetiko eta sortzailea ga-ratzea.

- Literatur lanak herri baten kultur ondasunaren jasotzaile eta transmiti-tzaile bezala baloratzea.

- Irakurketarako interesa eta jakin-mina suspertzea, kultur aberastasun eta gozamen pertsonal iturri bezala harturik.

- Euskal literaturearen aldi, ezauga-ri, idazle eta lan nagusiak ezagutzea, haien sortze-hartze baldintza historiko, kultural eta sozialez jabetuz.

- Euskararen aldaera desberdinak positiboki baloratzea, garai eta lurral-de desberdinetako autoreen testuak irakurritz eta entzunez.

- Multimedia-dokumentazio itu-riak helburu desberdinekin erabil-tzen jakitea.

Daniel Goleman

Adimen emozionala, autokontrollean aurreratzen

Adimen emozionalaz arituko gara oraingon, eta horretarako Daniel Golemanen ekarpena hartuko dugu ardatz. Adimen emozionalaren garrantzia behin eta berriro agertzen da bere lanetan. Adimen horrek gizakiaren garapenean eta egunerokotasunean duen garrantzia eta eragina azpimarratzen ditu. Era berean, eskolan emozioak nola landu ditzakegun aipatzen du, eta horrek zer ahalbidetzen duen ere bai.

Biografia

Daniel Goleman 1947an jaio zen. Argitasun eta maisutasun handiz deskribatzen du adimen emozionala. Psikologia arloan bere lanak aldaketa garrantitsuak dakartza adimen kozien tearen garrantziari buruzko mende baldeko teoriengatik. Teoria horiek aldakaitz egon dira belaunaldietan zehar.

Daniel Goleman The New York Times egunkariko zientzia orrialdeetako erredaktorea izan da, Psychology Today aldizkari estatubatuarreko editore eta Harvard Unibertsitateko Psikologia irakasle.

Gaur egun EEBetako hainbat ikastetxetan programa pilotu anitz zuzentzen ditu. Programa horien helburu nagusia haurrei gatazkak konpontzen, beren bulkadak kontrolatzen eta gaitasun sozialak garatzen laguntzea da.

Bere lanen artean hauek dira aipagarrienak: Simple Truths, The Meditative Mind eta Los caminos de la Meditación. Bere maisu lana *Adimen Emozionala* (Emotional Intelligence, 1995) da. Milioi bat ale baino gehiago

Milagros Pollán Rufo

Psikologian doktorea
NUPeko irakaslea Psikologia eta Pedagogia departamentuan



saldu dira eta 25 hizkuntzatarara itzuli da.

Lan horretako oinarriko printzipioak hartu eta hainbat hezkuntza programatan ezartzen ari dira, bai ohiko irakaskuntzan eta bai aniztasuna lantzeko programetan.

Sarrera

Adimen emozionala kontzeptua oso berria da adimen koziantearekin alderatzen badugu. Azken honen ikerketan ehundaka pertsona hasi ziren ia orain dela mende bat. Haren i-

kerketak eta aplikazioak batez ere adimen akademikora zuzenduta egon dira. Nahiz eta ikerketa anitz gauzatu, geure bizitzan aurre egin behar diegun zailtasun eta aukera ugarietarako prestakuntzarik ez du eskaintzen.

Adimen koziante altua edukitzeak ez du ezer konpontzen eta prestigio eta zoriontasun bermerik ere ez du ematen. Hala ere, eskolan gaitasun akademikoen garapenari garrantzia ematen jarraitzen zaio, eta askotan adimen emozionalaren garapenaren kalteetan.

Era berean, ezin uka daiteke bizitza emozionala irmotasun handiagoz edo gutxiagoz garatu eta finkatu daitezkeen trebetasunez osatua dagoela. Horren nagusitasunak mugatuko du bizitzan aurrera egitea edo geldirik geratzea (nahiz eta adimen maila handiagoa izan) eragiten duen motibo nagusia.

Adimen eskuduntzak helburu trebezia bat eratzen du eta horrek mugatzen du gure gaitasun guztiak zenbateraino menperatuko ditugun.

Adimen emozionala sentimenduen, nortasunaren eta bulkada mo-

ralaren lotura bihurtzen da. Ezin dugu ahaztu bulkada emozioaren ibilgailua dela eta bulkada guztien funtsa ekin-tza bultzatzen duen sentimendu he-dakorrean dagoela.

Autokontrolik ez duten pertsonak eta bulkaden menpe daudenak urritasun moralean murgildurik egoten dira. Izan ere, bulkadak kontrolatzeko gaitasunak borondatearen eta nortasunaren funtsa islatzen du, neurri ba-tean.

Zertarako balio dute emo-zioek?

Emozioek susma ezineko kontrol eta oreka eremua irekitzen digute e-goera berrien aurrean etengabe mol-datu beharrean aurkitzen garenean. Hor sortzen dira aurre egin eta kon-pondu behar ditugun gatazka egoe-rak: arriskua, konpon ezineko gale-rak, lorpenak eta helburuak lortzeko motibazioa mantentzea eta fustrazio-ak kontrolatzea, besteak beste.

Emozio bakoitzak ekintzen aurre-an modu desberdinez prestatzen gai-tu, helburu zehatzak lortzeko pautak eta helburuak zehazten dizkigu.

Gutako bakoitzak alde aurretiko joera biologiko bat dauka nerbio sis-temak erregulatu duen ekintzaren aurrean. Gero gure esperientziek eta ingurune kulturalaren eraginak mol-datzen dute. Burmuin emozionala eta burmuin arrazionala lotuta daude eta hainbat ezagutza forma elkarlotzen dituzte munduan gida gaitzaten.

Bien artean koordinazio handia dago sentimenduak ezinbestekoak direlako pentsamenduarentzat eta al-derantziz. Haatik, pasioen edo beste egoeren agerpenak oreka hauts deza-ke, eta burmuin emozionalak bur-muin arrazionala gaindu eta bahitzen du. Ondorioz, geure ekintzak irtenbi-derik gabe edo akastun irtenbiderik gabe uzten du.

Adimen desberdina

Hezkuntza sistemak haurri egin diezaiokeen ekarpenik garrantzitsue-netakoa zera da: bere abilezia perso-nalak osotasunean garatuko diren le-

kua aurkitzen lagundu, non asebetetik eta prest sentituko diren. Horretarako, pertsonen bizitzako ibilbidea ezin da arrakasta mugatua eta aurrez e-zarria duen ereduaren bidez aztertu.

Horregatik, Gardnerrekin bat eto-rriz, alde batera utzi behar da “Adimen koziantearen pentsamendua” deitu zuena, eta dauden hainbat eredu har-tu behar dira kontuan (*ikus beheko taula*).

Ikus daitekeenez, adimen koziantearen ereduarekin kontrajarrira da-goen adimen ugaritasunaren kon-tzeptua daukagu. Geroztik eredu hori zabaldu egin da 20 adimen motetara beste autoreek egindako ikerketekin.

Nondik hasten gara

Adimen emozionalaren muina sentimendu bat agertzen den unean bertan ezagutzeko gaitasuna da.

- Gaitasun hori funtsezkoa da geure burua ezagutzeko eta ezagutza ziu-rra ematen du erabakiak hartzeko ga-raian.

- Emozioak kontrolatzeko gaitasu-na. Autokontrol horren abitartez tentsio desatseginetatik aska gaitetzke, e-ta egoera latzei aurre egiteko eta kon-pontzeko gaitasuna igo egiten da.

- Besteen emozioak ezagutzea. Pertsonen arteko harremanak hobe-tzeko herri gaitasuna barneratzen du (enpatia). Erlazio sozialak ugaritzea ahalbidetzen du eta hainbat aktibitate profesional garatzeko gaitzen du. Aldi berean, sistema kognitiboak, afekti-

boak eta portaerazkoak indartzen di-tu. Mayer eta Salovey, 1993.

- Erlazioen kontrola. Besteen e-mozioekin sintonizatzeko eta erlazio-natzeko abilezia. Honen barnean sar-tzen dira ospea, lidergoa eta eragin-kortasun interpersonala.

Behin puntu honetara iritsita, ga-rapen ereduaren arteko desberdintasu-nak zerrenda ditzakegu, Adimen ko-zientearen eredu purua- aintzat harturik, zeinak zeharka begiratzen dion adi-men emozionalari eta eredu emozio-nalari.

Eredu intelektuala

- Interesen hedapena
- Abilezia intelektualak
- Handinahikoak
- Produktiboak
- Aurrez esangarriak
- Nekaezina
- Ez dira beren beharrez arduratzen
- Kritikoak
- Beldurtiak
- Kikilduak
- Ez oso adierazkorrak
- Emozionalki urrunak

Eredu emozionala

- Sozialki orekatuak
- Irekiak
- Alaiak
- Ez oso lotsatiak
- Ez oso obsesiboak
- Konpromiso gaitasuna

Dauden adimen motak kontrari hartu behar dira eta ez da babestu behar adi-men mota bakarreko egitura monolitikoetan.

Akademikoa

Hitzeko gaitasuna
Gaitasun logiko matematikoa

Espazio gaitasuna
Talentu kinestesikoa

Gorputz arintasuna

Musika dohaiak

Grazia

Adimen pertsonala

Interpersonala
Intrapsikikoa

- Arduratsuak
- Bizitzaren ikuspegi etikoa
- Adeitsuak
- Maitakorrak
- Beren buruarekin eta besteekin ados daudenak
- Bizitza emozional aberatsa

Ez gara prototipoak sortzen ausar-tzen, pertsona bakoitza adimen ko-zientearen eta adimen emozionalaren arteko proportzio desberdinen konbi-naketaren ondorio baita. Dena dela, kualitate horiek dimentsio biek perso-naren kualitate multzoari gehitu die-zazkieketen gaitasun espezifikoien i-kuspuntu hezigarria ematen digute.

Emozioak irakatsi

Adimen emozionalaren garapena “Trebetasun Emozionalak” (Grant, 1992; Self Science Stone F. ren Curricu-luma; Dillehunt, H., 1978) programa-ren bidez irakasteak eta lantzeak ho-nakoa ahalbidetzen du:

- Erantzukizuna handitzea
- Adierazpena hobetzea
- Kanporakoitasuna hobetzea
- Besteiei gehiago ulertzea
- Arazo interpersonalak konpon-tzeko estrategia sozial gehiago izatea
- Gatazkak konpontzeko abilezia handiagoa edukitzea
- Erabaki personalak hartzea
- Sentimenduak menperatzea
- Enpatia gehitzea
- Komunikazio eta entzuketa tre-betasunak garatzea
- Aldagai sozialak interpretatzea
- Besteen ikusmoldea ulertzea
- Portaera arauak ulertzea
- Bizitzaren aurrean jarrera positi-boa mantentzea

Eta modu honetan, bizitzaren es-kaeren aurreko egokitze prozesuan laguntzen duten trebetasunak eta gai-tasunak zerrendatzean jarrai genezake.

Nola hasi eskolan

Oinarriak berehalajartzen dira, bai-na adimen emozionala handitzen gare-nean ere ikasten da. Dena dela, bizitza-ko lehen urteetan egituratzen da modu erabakiorrean emozioen mundua. Be-

ren emozioak maneiatzen azkar ikas-ten duten haurrek emaitza hobeak lor-tzen dituzten eskolan.

Errazago egiten dira besteen lagun. Irakasle eta gurasoak imitatzen di-tuzte.

Ikasleak gatazken konponbidee-tan inplikatu egiten da lan.

Aktiboki entzun behar zaie, arazo-ak konpontzeko balioko dieten hitz klabeak soilik emanez.

Egoera arazotsuetan konstrukt-i-boki jokatu behar da:

- Ikasleak errespetatuz.
- Nork bere haserrea maneiatzeko gaitasunarekin.
- Autoestimu sentimendu egonko-rrekin.
- Besteen lekuan jartzeko gai iza-nez.
- Tonuak garapen emozionalaren gainean eragiten duela jakinez.

Beren emozio-ak maneia-tzen azkar ikasten duten haurrek emai-tza hobeak lortzen dituz-te eskolan

Gela irekian egin behar da lan. Ge-la irekia zera da: proiektu bat lantzea, lan astea antolatzea, lana astero plani-fikatzea eta, azken finean, klasetik ha-ratago doan ikasketa. Helburu bezala hauek ditu:

- Ezagutzak transmititzea
- Konpetentzia emozionalak garatzea
- Autonomia estimulatzea
- Erantzukizuna estimulatzea
- Gaitasun sozialak garatzea

Proiektuaren helburua komuni-kagarria edo erabilgarria izango den emaitza lortzea da. Etapa ezberdinak biltzen ditu: planifikazioa, gauzatzea eta balorazioa.

Lan askea. Ezagutzen ikasketan dituen ondorioez gain, ikasketa emo-zionaleko esperientziak ahalbide-tzen ditu: erantzukizuna, errespetua eta kolaborazioa.

Bibliografia

Golemanen lanak gaztelaniaz:


- GOLEMAN, D. (1995): *Emotional Intelligence*. González Ragak i-tzulia. Kairós, S. A.

Golemani buruzko lanak ingelesez:

- BRODY, L. eta HALL, P. (1993): *Gender and Emotion*. New York. Guilford Press.
- GADNER, H. (1993). *Multiple intelligences*. New York. Basic Books.
- MAYER, D. J. eta SALOVELY, P. (1993): *The intelligence of emotional intelligence*. *Intelligence*, 17, 433-442.
- SNYDER eta beste (1991): *The will and the ways: Development and Validation of an Individual-Differences Measure of Hope*. *Journal of Personality and Social Psychology*; 60, 4.

Golemani buruzko lanak gaztelaniaz:

- MARTIN, D. eta BOECK, K. (2000): *Qué es la Inteligencia Emocional*. EDAF. Psicología y Autoayuda. Madril.



ELK I NE N

